








A.T.V.
3282

Saunders el Sabio



Etxebeña'tar Pantzeska, S. J.
Uretxua'ko Eusko-olerti jaietan
saritutako olerkaria



Lebaitza 9 Agosto 1934
M - 10599
R - 4805

A.T.V.
3282

Adriozola



EVSKO OLERKIAK

URETXUA'KO OLERTI JAIETARAKO

eratu zan olerti gudara
bidaldutakoenatatik autuak

1933

Ariztimuño'tar Joseba'ren
ITZAUREA

IV'GARENA

EVSKATZALEAK

Gipuzkoa Aldundegiko yauregian. Donostia

ITZ-AUREA

Ufútitik datorkigun kantorea degu oraingoan txapeldun agertu zaigun olerkaria. Euskaleríko baratz esitik aruntz dabilen txoria. Euskelduna, bai-noski, atzerian abesten ari dana ordea.

Egalaria da, berez, olerkaria; idurimena eta olermena oi ditu ego. Gaurko olerkari au, ez amets-egoaldiz, gorpuztez ere egalari azkaía zaigu. Igaz Euskeleítik urundu zitzaigun Belgika aldera yoaz; arestian beriz, nora eta Txina'raiño aldendua degu.

Etxebería'tar Pantzeska, Ufretxua'ko olerti-guduan saritutakoa, gure artean euskeltzale kementsu agertu zana gaur Txina'n mixiolari dabil. Ezkioga auzoan, Santa Luzia baselizako apaiz zala, aspalditik euskeraganako zabilkian zaletasun gar bizia agertu zuan. Apaiz-gai zanetik, gori-gori biotz labetik ezpaiñetara maixamar zertorkion euskelmin ori aisa nabarbentzen zitzaion, noiz-nai.

Euskera indatzeaíen, apaiz bezela zezaken lanaz asgabe, irakasle izateari lotu zitzaion. Baseleizaren gibelean auzo eskola eratu ondoren aurtxoei euskelgaiak, irakurtzen eta idazten, irakastera bere burua beartu zuan.

Urte gutxi buru Ezkioga'ko auzo-irakasle izatetik Donostira « Argia » asterokoaren zuzendaritzara. Idazle trebea, txukuna, luma eíezekoa asteroko órétan agertu zitzaigun. Zuzendari bezela, ordea, zuzena, zoíotza. Yaun-

goikoa, siñismena eta euskera zaintzeko arazoetan ez bai-zuan iñolako epelkeri eta nagikeririk ezagutu nai izaten.

Etzitzaion iñea zuritu lanbide onetan. Mundutañen artean bizitzeko zuzenegia izaki nunbait eta, eragozpenak bidebaztertuaz, Yaungoikotasunari osoro emanaz, Loiola'ko yauregian eskutatu zitzaigun.

Erkaldañak Espaiñi eta Euzkadi osoaz yabetu ondoren, Yosulaguntañak arotz bidetik yoaz Belgika atzeñiratu ziran. Oiekin, gure gaurko olerkaria ere. Ez aldi luzerako nunbait. Xabier deunak antzo biotz muiñean zerutar dei berezia entzun ezkeroz Txina'ra bere oiñak zuzenduaz Euzkadi'tik urundurik, Yesus'en beñi ona zabaltzen dabil leiatsu.

Bat-bateko olerkari

Uste ez genuela Etxebeñia'tar Pantzeska olerkari agertu zaigu. Ez genekin olerkaria zanik. Bai euskel idazle yaio zala. Bertso lanetan ez bai genduan beñere sumatu.

Alaz ere, bat batean « Bost Lore » ren egilea zala ya-kiñik, nai ta nai ez olerkaritzat ezagutu beañean gera. Epaileak olerki auxe aukeratu bai-dute aipagañiena bezela. Beraz, IV'gañen Olerti Egunekeo guduan txapeldun uste ez genuena garaile. Ipañagiñe bertsolariaren gorazañe egu-nean, 1933'ngo uztañaren 16'an, « Bost Lore » goreneko olerkitzat aukeratua izan zala yakin arazi ziguten.

« Bost Lore » ez da, oraitio berdin iritzia izan. Ba ditu aldekoak eta baita etsaiak ere. Epai maiekoen iritziko

naiz, ni beintzat. Ezin arin yoka genezake eder-arozoa eskuartean darabilgunean. Eder-gaia alde onetik eta alde-rantzetik begira beáean gera. So-egiogun zofozki gure epaia irauli baiño len.

« Bost Lore » azaletik irakuíi izateak guri ere alako ezbeáren bat egin ote zan iduritu zitzaigun. Beintzat, igazi ziran beste urteetako olerkien maílakoa ez zeritzai-gula edo. Baiña zeatz eta astiro aztertu ondoren amaika gauz sotil eta aratz arkitu ditugu. Baita, oraindaiño izan diran olerkarietara ere irakaspen ederik erakutsi lezaieke « Bost Lore » onetxek. Alegia, gorengo ertilariak gaurdaiño taitutu ez duten erara eder-gaiak, antz-iduriak, eta amets ereduak, eusko kutsu yatoáz asma eta sor lezaztekela, euskeldunen begiak ikusi eta beroien irudipenak arasi ditzuzten lege antzera eta ez atzeritar ertilariak erakutsi diguten gisara.

Eusko elerti-kerá berezia (estetika)

Euskel efiak edergaietan eta antz-gauzetan yokatzeko bere kera berezia ba-du. Ez beste efién kidekoa, ez berdiña baizik. Areago oraindik olerti eta bertso gaietan.

Ez deritzaigu eusko olerkari litekenik euskeraz bere bertsoak neurtzeagatik bakaíik. Baliteke ofela idazten duanak euskel yantzi dotoreaz gun arotza estaltzea : baliteke gure edertasuna ez dagokion erara oartzeta : baliteke edertasun ori adierazi naiaz eusko adimenak ulertu eta irudipenak sortzen oi ez duten gisara erakutsi nai izatea.

Euskaleñiak olerti gaietan badu bere eder-kerak, badu bere estetika. Olerkari izan baitzaigu euskelduna: yatoñiz bai-datorkio gure sortefiari olerkari izatea. Beraz, olerkari yatoña izanik, eder-zale ez ezik edertasunari soegiten eta edertasuna erakusten ba-lezake.

Eder ikuste eta erakuste onek berekin darama eder-oitura eta eder-legea sortzea. Nor bakoitzak bezela, eñi osoaren atsemenak ere bere kerara yasotzen du edertasuna.

Eñi-atsemen tankera berezi auxe bere-berekoi estetika-ren iturburu da. Beraz, euskeldun eñia edertzale izanik edertasun ori berari dagokion eran ikusi, eta bere irudimenak agintzen dion eran, iduri moltsoaz apainduta, agertzen du.

Eñi guziak dira asko-gutxi edertzale: orok nolabait, dagokioten eran, ere agertzen dute. Gureak ere bai.

Edergaien agerketa bertsoen bidez geienetan adierazi digu. Ez gaurtik, antziñetik baiño.

Bertsoak olerti arazoan azal yantzia besterik ez dira. Olerti gaira oldozkuna, asmoa dezu. Gun oren bizitasuna dakarkiten mamia irudiak, amets-ereduak izaten dira. Oietxek oldozkun eta asmoei alako edertasun berezia erasten diote: oietxek bertsoei ere apaitasuna ematen diete.

Euskaleñiari dagokioten olerti-eñikoiak sabelean daramaten edertasun oñeri begira zaiogun. Ez yakitunen olerkiei: oiek, oraindaiñoakoan, argalegi eta kaskañegiak izan zaizkigu. Geienetan, gairera, erdel kutsuak ikutuak dira. Eusko gogoari dagokion edertasun gutxi sortu digute

sasi-yakitun izan diran sasi-olerkari oiek. Ez diot, noski, gaurko olerkari yaioengatik, dasadana.

Eíkoí olerkiak beste dira. Oiek, sakonkiro euskeldun begiak ikusi eta biotz eíkoíak maita izan dituzten gaiak, edertasunez aberastuta erakutsi dizkigute. Maiteminduen antziak, guraso-senideen ar-eman etxekoíak, eztaí-yaiak, ezkontza arazoak, auén azitzea, adizketasuna, goíotoa, maitasuna, bertsoetan eíak kanta-gai artu dituanean alako dotoretasun bikain batekin yantzita aurkeztu dizkigu.

Eusko irudien gaiak

Edertasun yantzi ori ; irudi, eredu eta amets-asmoen gai zerzuk ote ziran olerkari eíkoíentzat ?

Izadiko gauz guziak bertso irudien-gai. Baiña, olerkariak sorteían ikusi zezazkean gauzak ; artzaiak artzaingoan, nekazariak soro-basoetan, eiztaria zalai mendi-malkaíetan, aíantzaleak legor-ertz eta itxasoan, egunero, orduero ikusi eta eskuartean ibil zezazteken gauzak olerkari eíkoíak poesietarako eder-gai zerabilzkiten. Gure bertsolari eíkoíak ez dute beíñere ez irudi eta ereduén-gai, ez edertasuna sortzeko erabili arteko etzitzaien gauzik.

Eunka olerki eíkoíak aztertu ondoren ara sailetan banatuta nabaitu ditudanen irudi eta ereduén gaiak :

1'ngo : Lore-landaretan : briona, ilaía, zitroina, mar-txika, mahatsa, otea, sasia, aíosa, sagaía, baba, udare....

2'gaíen : Zuaitzetan : aritza, ametza, pagoa, lizaía, saratsa....

3'gañen : Txori-egaztietan : epeña, kaila, eñetxiñola, papoñoia, usoa, belea, añanoa, oñlaña, erbia, erlea, zagua, katua....

4'gañen : Abereetan : oreina, antxumea, zaldia, txakuña, beoña, beia, zirikoa....

5'gañen : Nekazari gaietan : goldea, arto yoñatzea, ogi loratzea, itzulketa, itzaiketa, artzaintza, eiza....

6'gañen : Izadi-gaietan : bortietako elur, eñekako izotz, artizaña, ilargi-laiñu, eguzki itzal, baso, oian, zelai, aran, ibar, muño- egi....

Oiekin, edo oien kideko diran beste gauzeekin, olerkari eñikoiak naiko du bere olerkiak apaintzeko. Ez darabilkio irudipena Asia'ko bitxi, Ganges ibaiko ertzen, edo Arabi'ko basamortuen igesi. Gure lur eta izadi puska onetxen aberastasuna aski du olerkariak asmaketa aratzak, goi-argi atsak erainda, adierazteko.

Eusko kutsu duten irudiak

Aitatutako gauz oiek irudi eta eredu sotil-edeñak asmatzeko gai exexak dirala diritzaioke noski norbaiteri. Bai ote ? Besteren beañik ez dute izan ba gure olerkariak olerki zoragañiak sortzeko. Giza biotzak naiko lukeen poztasun edo naigabea agertzeko; naimenak gura leukena adierazteko eta atsemenak edozein mailletako edertasuna irizteko gaitxo oiekin pranko izan dute eusko olerti baratzan.

Eñiak abesten ditun kanta zañetatik yasoteko apal-

dietan ikusenezake nolako gaiak zarabilzkiten antziñako olerkariak irudiz, eredu eta amets-asmaketaz beren bertsoak edertzeko.

Len aitaturako gauzak, edo aien kidekoak, apaldietako lenengo bertsoetan arkituko ditugu, irudi antzo: aizken bertsoetan, beriz, olerkariak adierazi nai lukeen asmo edo oldozkuna.

Ementxe ipintzen ditudan apaldietan oar zenezake, irakurle, irudi-oldozkunen zer ikusi ori, bertso talde batzuen barren-muiñetan. Ura, irudia, iragarle bezela beti lenen; beste oneko au, oldozkuna, oiu-egileak adierazten duan zalduna lez, aizkena. Eredu eta amets-asmaketak irudipenaren seme aroen antzera; oldozpena, beriz, adimenak sortutako ondorengo nagusi balitzaiguke bezelaxe.

Eder-irizle zaitugun ezkerro edo, dasadana egia ote dan epai zenezake bertso oiek aztertuz. Eriaren biotz-epaiñetatik yasoak dira:

Irudi-kerak maite kantetan

1 { *Irudia:* « *Otea lilia* danean,
 txoria aren ganean;
Oldozkuna: — ura yuaten airean berak plazer duenian:
 — zure ta nere amodio ala dabila mun-
 [duian (1) ».

(1) Cfr. Chants Populaires du Pays Basque par J. D. J. Sallaberry. Bayonne. 1870. « Argia dela diozu ». 8 ofialdea.

2 { *Irudia:* « *Bortiak* txuri dira *elur* dienenian,
sasiak ere ulun *osto* dienenian ;
Oldozkuna: —Ala ni malerusa! zeren an sartu nintzan?
Yun banintz aitzina
eskapatzen nintzan (2) ».

3 { *Irudia:* « Goizetan eder dizu *ekiak leiñuru*,
mundi argitzen dizu inguru-inguru ;
Oldozkuna: —Ni-re zure onduan ala nabilazu :
Eia maite nauzunez, otoi, eñadazu (3) ».

4 { *Irudia:* « *Txori papogoria* eijerki kantatzen,
gauazko alojia kanpuan xerkatzen ;
Oldozkuna: —Ni ere gisa berian nuzu edireiten,
maitiak ezpadereit borta idekitzen (4) ».

5 { *Irudia:* « Mendian zoin den eder *eper xango goñi*
Oldozkuna: —Ene maitiak ere bertziak iduri ;
Eni itz eman eta gibeletz itzuli (5) ».

6 { *Irudia:* « *Oreina* laster dua *horen* aitzinian,
urian sartzen duzu ahal dianian ;
Oldozkuna: —ez amorioz bena ala zabilta araez (6) ».

7 { *Irudia:* « *Altzak* ez du biotzik,
ez *gaztanberak* ezufik :
Oldozkuna: —Enian uste eñaiten ziela aitonen semek
[gezufik (7) ».

(2) Cfr. Chants Populaires du Pays Basque par J. D. J. Sallaberry. Bayonne. 1870. « Txori eñesiñola ». 13 of.

(3) Cfr. Ibid. « Bortian auzki ». 22 of.

(4) Cfr. Ibid. « Txarmangafi bat badit ». 67 of.

(5) Cfr. Ibid. « Mendian Zoinen eder ». 76 of.

(6) Cfr. Ibid. « Mendian Zoinen eder ». 77 of.

(7) Cfr. Ibid. « Bertefetxen kantoria ». 108 of.

- 8 { *Irudia*: « *Neguaren* ondotik jiten duzu *uda*:
Oldozkuna: -- zertako egiten duzu ofenbeste duda (8) ».
- 9 { *Irudia*: « *Atafatze* jauregian bi *zitroen* doratu;
Oldozkuna: -- Ongria'ko eñegiak bato du galdatu... (9) ».
- 10 { *Irudia*: « *Mariñelak* juaiten dira *itxasorat untziko*:
Oldozkuna: -- Zure neganako amodioa sekulan ez
[det utziko (10) ».
- 11 { *Irudia*: « *Mertxikaren loriaren* edeña!
barnian duzu *exura* gogoña:
Oldozkuna: -- gaztia naiz bai eta loriusa,
ez dizut galtzen zure esperantza (11) ».
- 12 { *Irudia*: « *Mahatsak* eder du *osto*
luñian bañena eñua:
Oldozkuna: -- neskatilak ezetz eñainagatik
baliteke amorioa:
yañaiokiok mutil zoroa (12) ».

Irudi - kera eskale-talde kantetan

Era guzietako olerkiak ala maite kantak bakañik daramazkite bertsomuiñetan eusko kutsu yatoñaz ikutuak diran irudiak? Maitemindutako gazteak, bakañik, beren

(8) Cfr. Chants Populaires du Pays Basque par J. D. J. Sallaberry. Bayonne. 1870. « Altarik ez dut ». 141 of.

(9) Cfr. Ibid. « Atafatze jauregian ». 143 of.

(10) Cfr. Ibid. « Lufaren pian ». 148 of.

(11) Cfr. Ibid. « Sorterako alaba dendaria ». 198 of.

(12) Idazleak Fagoaga'ar Josebari yasoa. Eñazu (Baztan'en).

kantetako eder-gai txori, lore, baso, eluraren apaintasuna aukeratzen ote dituzte?

Eder-irizle, Apraiz'tar Odon yakintsuak dionez maite-kantetan bereziki irudi-oldozkunen yoskera auxe arkitzen omen da: «Ikusten danez—dio Apraiz yaunak—Euskelerki guzietako eta maila askotako olerkietan aurkitzen da nik aipatu dodan bikotasuna. Baiña batez be biotzeko alaitasuna ta mintasuna agertzeko diran olerkietan artzen dira izadiaren irudi ta margotasunak (a) ».

Bere iritzia sendotzearen geroxeago dasa: «Maitasuna eta mintasuna eta olako gaiak, bigunak eta guperak dira. Gure gizonak beriz, lotsatiak; bere barukoa azaltzeko gaitzak. Oregatik bareneko gauzak esan baiño lenago asten dira beste arinagoetzaz mintzaten; amasa artu bear edo, gogoak irudi ederaz gertau bear edo, bide zioetatik yoan bear edo toki zailenetara eltzeko (g) ».

Gure aburua, ordea, ez da Apraiz'enaren kidekoa. Berak dion bikotasun ori, alegia irudi-oldozkunaren alkar bear ori, batez ere maite bertsoetan ageri zaigula. Ala bear noski eriko kanta geienak maite-kantak, beste edozein eretakoak baiño ugarigoak maiteminduenak diran ezkeroz.

Eskale-taldeen olerkietan, urtezar, gabon, Santa Ageda sasoikoetan, seaska eta dantza-bertsoetan ere ugari aukeratu genezazke izaditik yasotako irudi oiek bikotasun oren edertasuna erakutsiaz.

(a) Cfr. Homenaje a D. Carmelo Echegaray. San Sebastián. 1928. 607 of.

(g) Cfr. Ibid. 609 of.

Eskale-taldeen bertsoak:

13 { *Irudia:* «*Ametzak eder azala*
aritz gazteak bezala;
Oldozkuna: —zu etxeko andre zaña,
 etxe untan bada zure beña (13)».

14 { *Irudia:* «*Landan eder ilaña,*
aren azpian belaña;
Oldozkuna: —etxe untako etxeko alaba
 bular artia zilaña (14)».

15 { *Irudia:* «*Zeruan eder izaña*
errekaldian lizaña;
Oldozkuna: —itxe untako nagusi yaunak,
 ure gofizzo bizaña (15)».

16 { *Irudia:* «*Or goian erota*
irina leun yota:
Oldozkuna: —Itxi untako andria
 Ama Birgiña debota (16)».

17 { *Irudia:* «*Armaioan zagua;*
aren guardia katua.
Oldozkuna: —Itxe untako limosnarekin
 ez degu beteko zakua (17)».

(13) Idazleari Sara'ko Mdme. Arestik bidalia.

(14) Idem.

(15) Idem.

(16) Idem.

(17) Idem.

Bertso oien kidekoak diran amaika apaldikin luzetu genezake lantxo au. Ain oparotsuak zaizkigu eskale-kantak irudi berezi oiek bertso bakoitzetik naro-naro darioten ezkerro. Nork entzun ez ote ditu gazteen oiu aldiak gabonetan edo urte zaáretan «eder eleizan aldare; ari landuaz pilare»; «usua diyoa otara; nere begiak lotara»; «eder soruan goldia; soñian yantzi moria», eta beste onelako ainbat bertso zar kantari baseítik-baseíra, auzotik-auzora lastargien gar goñiaz, gau beltzeko suzko begi aldakoía balira bezela, ilunaren sabela uratuaz eta abesti leunaz gozotuaz ?

Gure irudiok dantza - kantetan

Gutxitan abesten dute euskeldunak doiñuari letra erantsi gabe. Abesti erikoiak argalxamaiak deritzaizkigu, noski, beren eraietan bertso pilak ez badaramazkite.

Ezta dantzatzeko diran kantetan ere. Dantza-abestiak soilik, neurtitzik gabe, arkitzea zailtxoa ez zaigu izango. Orelako dantz-olerkiak aztu egin dira makiñabat tokitan; baiña antziñan bere bertso-mordoak bazituzten.

Olerki dantza oietan ere, berdintsu irudi-oldozkunen bikotasun ori nabaitu genezake. Ale batzuk gogoá alaitzeko bidez ementxe diyoazkizu:

18	{	<p><i>Irudia:</i> « <i>Ziriko</i> beltza ona dut bainan obea <i>bustan</i> zuria.</p> <p><i>Oldozkuna:</i> —Dantzan ikasi nai duen ofek nere zangoari begira (18)».</p>
----	---	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

(18) Cfr. Cancionero Popular Vasco de D. Resurrección María de Azkue Tomo III. Danzas. « *Ziriko beltza* ». 108 or.

- 19 { *Irudia:* «*Epeñak* kantazen du
goizean *intzetan* :
Oldozkuna: —ez daiteke fidatu
mutilen itzetan (19)».
- 20 { *Irudia:* «*Sagara lore-lore*
denbora danean;
Oldozkuna: —gazteak anakak arin
soñua danean (20)».
- 21 { *Irudia:* «*Pikuaren ostoa itzala* egiteko;
Oldozkuna: — ederegia zara nekerazitzeko (21)».
- 22 { *Irudia:* «*Baratzeko pikuak iru txurten* ditu;
Oldozkuna: — mutil andre - zaleak anakak
[arin ditu (22)».
- 23 { *Irudia:* «Atzo Bilbon negoan
ta gaur Bitorian;
sañi *ura* agortu
gure iturñian.
Oldozkuna: —O neska farandona.... (23)».

Ogibide-kanta-irudiak.
Lanean ari ziralala ere...

Ezin luzaroko aritu genizke olerki-dantza oiek kanta-
tzen. Dantzak berakin dakarki batera eta bestera ari bear

(19) Cfr. Cancionero Popular Vasco de D. Resurrección Maria de Azkue. Tomo III. Danzas. «Oraingo mutil txurak». 91 of.

(20) Cfr. Ibid.

(21) Cfr. Ibid. «Orain kantatuko det». 89 of.

(22) Cfr. Ibid.

(23) Cfr. Ibid. «Atzo Bilbon». 46 of.

zatea; eta zankoak nagitu, besoak auldu eta batez ere birrikak itobearéan yartzen dira geitxoegi bira-bira yardun ezkerro. Bai-ta, ustekabean, barea altxa ere.

Atsedean gaitean bada. Andre beñitsuaren yarduna baiño amaigabekoagoa genduke bertso dantzen apaldiak erakutsi beara.

Euskelduna, ordea, kantatzez ezin ase. Ari dala naiz dagoala beti abesteari lotua. Abenda gutxi gereza bezin abeslari.

Gauden bada. Zeudela ere, arbasoak mara-mara kantuz aritzen ziran. Artazuriketa zala, liñuaren lana zala, euleak oiala euntzen ari zirala, olagizonak burnia guritzen, gorulariak ardatza dantzatzen, itzai-mutiltxoa itzulketan.... —nor ez Euskalerían? — oparotsu, naro abestiak itur gardenetik antzo eztañietatik iges ziyoazkioten. Kanta oiei, ba, gure eñiak ogibide, lanbide abestiak deitu izan die.

Ogibide kanta oietan, lanbide eta abesti oietan beste era guzietako bertsoetan bezela irudi-oldozkun, eta eredu-asmo ezkontza ez da austen. Alkar-adizkidetasuna uratu gabe doa.

24	{	<i>Irudia:</i>	<i>«Añosa-lilia lore;</i>
		<i>Oldozkuna:</i>	—nork bear du senañik? bat ere, bat ere ez dut, bat bear nuke nik (24)».

(24) Cfr. Cancionero Popular Vasco de D. Resurrección María de Azkue. Tomo IX. Canciones de oficio. «Añosa-lilla». 9 of.

- 25 { *Irudia:* «Aza gazte landare
Oldozkuna: —konpañian dugu-logale
barda ere, gaur ere (25)».
- 26 { *Irudia:* «Or, goiti ortan zugatz bat
deitzen zaiona *lizaña*;
Oldozkuna: —Oña Gloria lagun arteko
papar guzia zilaña. (26)».
- 27 { *Irudia:* «Or, goiti ortan zugatz bat
deitzen zaiona *gaztaina*;
Oldozkuna: —Oña Fermina lagun arteko
amalau libra ezpaina (27)».

Ez dira, beraz, maite-abesti goñietan utsik, erikoi diran olerki geienetan baizik irudi-asmoen bikotasun oiek sumatzen ditugu: bertso eraietan dantza, eskale-talde eta ogibide olerkiok dirdiz edereko pitxiak bezela altzoan gordetzen dituzte, eta aberaski ala ere.

Egia ote da, Apraiz jaunak dionez, maitasun arazoetan euskeldunak motzak, beldurtiak dirala eta arnas artzearen izadi ikutuzko-irudi oiek, bide antzo, kantatzen dituztela?

Ez gaude orietan. Maiteminduak Euskalerian, eta edonun, dituzu lotsatiak. Asieran, batez ere. Ez aldi guzietan, ordea. Maitasuna gai duten amaika bertso, lotsati ez ezik ausartiegiak ere, entzun eta irakur izan ditugu arnas ori bide ar gabe.

(25) Cfr. Cancionero Popular Vasco de D. Resurrección María de Azkue. Tomo IX. Canciones de oficio. «Aza gazte». 10 of.

(26) Cfr. Ibid. «Irairon». 17 of.

(27) Cfr. Ibid.

Eta olerkariak maiteari zuzentzen ez dizkan bertsoetan zertarako ote orelako neurí artu beaírik, naiz maite-kantak asmatu ? Eta dantza-abestietan zertarako ote beldurtasun ori ? Eskale mutil-taldeak maitasunik agertu bear-ote diete etxeko jaun-andrei, irudi bidez, aurkezpena egiteko ? Eta ogibide-bilera beítsuetan, itzen ausarkeria ezten zoírotza baiño areago eta bildurgaíago dan garaian, apaltasun orek bai ote du leku ?

Zergatik ote ain izadi-irudi-zale olerkari-erikoia ?

Arlo zaía, korapiíoa érezki lasatzeko, agian. Deritzaidana, argira dezadan, ordea.

Euskelduna izadi-zale puíkatua zaigu. Berez dioazkiote guretaíei, ez uritaíei noski bai mendikoei ordea, buru-belaí-begiak izadi gaien ondoren. Inguruko txori, abere, mendi, zelaiak dituzte maite. Goiz-txintako egaztien kanta guziak ezagunak zaizkate ; zugaitzen itzal, lerdentasun, gogortasun eta sotiltasunez begiak aserik bizi dira; abere eta piztien aztarna, uratsak eta maíuak nekerik gabe nabaitzen dituzte. Oien oroen margo-bizitasunekin, otsen leuntasunakin, izate-tinkotasunakin, ibiltze-arintasunakin, ikutze-gozotasunakin, ikuste-sotiltasunakin naiko ba-dute, beroiek gogoz maitatzeko.

Gure olerkariok, eder-ikusle oiek, ez ikusi bakaírik, zoírozkiro so-egiñik ere, izadi-gai oien gun-muiñetan araztasun pranko nabaituaz aíturik gelditzen dira. Ikusi, en-

tzun, ikutu dituzten gai-edeñen antza betirako itsatsiak gelditzen zaizkiote irudipen-sakon barnean.

Onela, usterik gabe, olerkari erikoiei auretik bizikiro so-egiñik bereganatu dituzten makinabat eder-gaiez, aberastutzen zaiote irudipena. Barúak agintzen diotenean olermena arótzten zaiote, bat batean, irudipen-labea goriturik bertso eder mordoak, apaldietan borobilduta, an dioazkiote oartu gabe.

Otzean ez burnirik lantzen ; ez da ere goi-arnasik gabe olerkirik sortzen. Garbi asko olerkari erikoioiok diote. Ara, oetako batek zer dion :

« Bertso bida bear ditut kantatu
izañei : zer zaidan gertatū ;
naiz ez nadin deusikan baliatu,
ala ere bear ditut kantatu
korputzak ar dezan deskantsu (k) ».

Olerkari onetxek bere kanta-zaañeko apaldi batean—
12'gañen zenbaki damakinian—olermena biziki zarabalkin
nunbait : irudi-yaioaren bidez eztenkada zoñotza sartzen
bait-du alajaiña.

Irudi-oldozkunak alkar zer ikusirik bai ote?

Ezezkoan dago Apraiz yauna. « Baiña zati biok bereziak dira, alkañegaz nastau barik, euren artean nastau barik, bakoitza azke eta aldebateratuta (y) ».

(k) Idazleak, Fagoaga'tar Joseba'ri yaso. Eñazu (Baztan'en).

(y) Cfr. Homenaje a D. Carmelo Echeagaray. San Sebastián.
607 of.

Ez da bi zatitxo oiek nasi bea'rik ; bakoitzak berari dagokion berekoitasuna beukate ; irudiak irudiari dagokiona, oldozkuna oldozkunarena. Ez dira azkatasun oso duten au'ak, ordea.

Irudi-oldozkuna alkar inguratzen dituan loka'ria meea degu oso ; ederti-arazoak eskatzen duan bezelako ari'na. Askotan lenen begiratuaz alkarganako ar-emanik ez da ikusten, sakonkiro so-egindakoa, bai-ordea.

Bestetan, egia, nolainai aztertu a'ren ez zaigu agertzen anaitasun ori. Zergatik ote ? Olerkaen batasuna autsi dalako, batzuetan: bestetan, be'riz, apaldiak zakabanatuaz irudi bateri, urtearen buruz ziurtasuna galdurik abestean abeslari e'rikoiak, edozein oldozkun erantsitzen diotelako. Onelako abeslariak irudi-oldozkun ezkontza pa'ega'riak egin arazten dituzte.

Ots ! ea astiro aztertu itzazu len aitaturako apaldiak bikotasun o'ren anaitasuna oartzten ote dezun. Azalean, agian ez, izan leike bai'na mami eskutuan arkitzea.

Lenengo apaldian (1), ez ote dio txoriaren arintasunak olerkariari gogora ekartzen maitaleen maitasun-aldako'a ? Biga'enean (2) elur gordi'na eta sasiostoen ulun tristeak bere maitasunaren atsekabea ez ote dio bururatzen? Txori papogo'ria —lauga'enean (4) —gaua igarotzeko estalpe-bi'la ibiltzen dan bezela, maitaleak maiteagandi atea idekitzea lortu nai luke.

Ausnar zero'ek, irakurle, 7, 8, 11, 12,.... ga'ren apaldiak eta ikusi dezakezu alako eskutu kate zoraga'riak irudi eta oldozkunak estutzen dituan ala ez. Beste batzuetan gai-

tzago oar zenezake, oretarako olerki osoa edo apaldi batzuk irakurri bear zenituzke-ta.

Bikotasun oretako oldozkuna, noski, edozein gisetako asmoa izan leiteke ; maiteminduaren atsekabea edo maitaleen zorientasuna agertzen dutenak ; iri-yolasetakoak ; bizitz arazoa erakusten digutenak ; gizadiaren zintzotasun edo griñak azaltzen dizkigutenak eta beste ainbat eratakoak.

Apaldien taiukera

Irudi-asmo bikotasuna eraietan daramaten apaldiak bere kera berekoia dute. Beste bertso taldeak bezela taiutuak ez dira izaten.

Apaldi oiek bi zati ezagunak dituzte, dakigunez. Lenengo neuritzetan, beti ia, irudia azaltzen zaigu. Aizkenekoetan, beriz, oldozkuna. Noizik bein, oso soil eta bakan-ka, ordea, irudia aizken tokian dagerkigu.

Apaldia laukoa bada, lenengo bi bertsoak irudi-eredua-
rentzako dira ; zortziko bada, asierako lau neurtitzak. Iruko apaldietan bat, edo geienean bi bertso, bear izaten ditu irudiak bere izakeraren eder erakusteko.

Bertso talde oiek ez dute ordea olerkian toki yakiñik; asieran, amaian edo olerki muiñetan berdin dioazte irudi berezi oiek sabelean dituzten apaldiak. Olerkariaren goi-arnasak iraultzen ditun tokian, bertan gozo egiten dute apaldi oiek.

Ez dira olerki zarak oparotsuegik eredu-asmodun apaldiak zakabanatzen. Bikotasun ori olerki geienetan bein edo

bi, goiti yota geienen bizpairuren bat aldiz agertzen zaigu.

Ezin uka ala ere ba-dirala « Amoraina ñimiño » antze-koak lauretaiño ere dakaizkitenak. Onelako maila irizten dutenak, egiz, dira gai-edezez, irudi aratzez eta eredu-sotilez aberatsenak. Oetan olerkariak buruan darabilzkin asmoak eten gabe arigañizko irudiz yantzitako bidetik amaiara daramazki.

• Bost Lore » n eusko-irudiak

Gure olerkaritzaz degu oraingo aldia. Bide luzea onera irizteko ibili deguna. Bearezkoa genduaña baiño, « Bost lore » n lausaro gozoenak, erleak antzo, miztu nai izanik.

Bidebaztertu ditzagun, oraingoz beintzat, olerki onek eduki lezazken edertasun, biotzikutu eta asmo yaioak, gure alako iduri tankera bereziaren yardunera etoñi gaitean.

« Bost lore » k etzuan goiko mailik iritziko, nere aburuz derizkiot, ez bost zatien olduzkun-batasunarengatik, ez gai-araztasunagatik, ez-ta ere olermenaren eraite biziagatik, gure olerkariak, goi-arnasak ats-egiñik, ain egoki bere bertsoetan eusko-kutsua daramaten irudiok irauli ez bazituan.

« Bost lore » ko bost asmoak bereziak dituzu, ez dute alkarénganako zer ikusi aundirik ; olerkiaren batasuna aultxoa zaigu. Zati bakoitzaren asmoa txukuna, polita da, ez ordea berez apaldi taldeak arotzeko aiña, ez gorengo mailara olerkia yaso zezakena.

Beste edertasunik badu « Bost lore »k, enetxoa. Eder-
tasun auxe asmo txukunari erantsita, olerkiaren sotilta-
suna argiro agertzen zaigu.

Edertasun oñen iturburu, ainbat aldiz aitaturako, iru-
diok. Érezkaran dioazkizu, or-emen, apaldietan banatuta
arki zenezakenak :

- 28 { *Irudia* : «Ez al dek ikus
Sagartxo mardulen ordez
Galañagako egia dela
Osoro bete *arantzez* ? (28) »
- 29 { *Irudia* : « Erbeste-kutsuz lausotu zaigu
ain lerdan zegon *lizaña* (29) ».
- 30 { *Irudia* : « *Belar-zelalan esiak* asko,
mailak ugari langetan ;
Oldozkuna : —gure buruak nola ez zaitu
izanik askoz ohea ?... (30) »
- 31 { *Irudia* : « Zure *ingurutxo* alaietan
eder dirudi *zelaian* ;
Oldozkuna : —*Sendi* ugariak *maian*... (31) »
- 32 { *Irudia* : « Gora doa orman *untza* :
oni dagio *laguntza*
sasi eta ote zofotza... (32) »

(28) Cfr. Eusko Olerkiak. 1933. 8 of.

(29) Cfr. Ibid.

(30) Cfr. Ibid. 9 of.

(31) Cfr. Ibid. 15 of.

(32) Cfr. Ibid. 17 of.

- 33 { *Irudia:* « Amargañenez loratua zait
etxe aufeko *sagaña*.
Oldozkuna: —Udara artantxe zerura da igo
nere amona xaafa... (33) ».
- 34 { *Irudia:* « Naiz *itulian* ta *larañian*
oiek naukate bizirik ;
Oldozkuna: —Lo bakoitzean bien muxuak
laztantzén ditut poz-pozik :
biotzok gañez egiñik (34) ».
- 35 { *Irudia:* « Lengo *sagañak* orain *arantza*...
ingurun ez da *lizañik* :
Oldozkuna: —Apaldi ontan gora-bera asko
ikusi ditu Belabi'k...
Arekin ere baita nik (35) ».

Bide zañak berituaz

Ara, Etxeberriak bere olerkiak edertzeko irudien gai antziñako bertsolariak zarabilzkiten gauz berberak apaldietan sotilgañi nola itsasi dituan. Gaurko olerkari onek kanta zañak zoñotz ausnartu dituala agertzen digu.

Ez ditu irudi-oldozkun bikotasunak ertilari arbasoak taiutzen zituzten era ber-berara gertatzen « Bost lore » aren egileak, baiña aien eta onen eredu-oldozkunen senidetasauna garbiro edozeiñek, irakuñi utsik, oar dezake.

(33) Cfr. Eusko Olerkiak. 1933. 21 of.

(34) Cfr. Ibid.

(35) Cfr. Ibid. 22 of.

Aiek, antziñakoak noski, kera berezi oneri iraunkoñago eutsitzen zioten ez beste gaurko olerkari onek. Bertsolari zañak euskel-gun biziagoa txertatzen zien iduriai eta bertso giñagoak taiutzen zituzten.

Ez giartasun ori, ez eusko-kutsu yatoñena duten irudiak ezin beti eska genezazkie gure olerkariet. Olermen eta irudimen-egoari eder zeru utsi detzaioguten. Zelai zabal-letan ibili ditezela; ez ditzagula mendi ateetan ito.

Alaz ere, adizkide zaizkidan Lauaxeta, Jauregi, Tapiaperurena, Jakakortajarena, Ituñalde, Oxobi, Loidi, Zaitegi, Enbeita anaiak, Erkiaga'tar Eusebi, Gaztelu kaputxinoa, eta Onaindia karmeldarai iztxo bat bederen zuzendu nai diotet.

Idatzi dedana idatziaz zuek biotz-buruan izan zaituztet. Zuentzako bide beñirik idiketzeko asmorik ez det izan. Ausarkeria litzake. Zuek guzia dezazuteke eusko olertia goi-gorengo mailara egazteko. Eusko-elertiaren itxaropenak zeok zerate.

Olerti eñikoia igartzera dator. Zuaitz zar ori eusko-edertasunaren gordeilu izan da. Idazleak eta olerkari apainduak erakutsi ez digutena eñiko kanta zañak irakasten digute eusko gogoaren edertiari buruz yakin dezakeguna.

Irakaspn ori biltzea besterik ez det egin. Arbasoen apaldi txorta zuei eskeintzen dizutet. Lore-kanta zaar oien lausaro auxe miaztu zazute. Antziñako bertsolarien esakun, irudi eta asmoak ausnartu itzazute. Oñela zuen irudimena aberastu eta olermena eusko kutsuz igurtzitzea lortuko dezute.

Goi-atsak irudimena irakin-azi eta olermena arotzen

dizutenean mara-mara, naroki oso, sortzen dituzuten edozein oldozkun, iñungo asmo, eta asmaketa ariñarienek ere eusko gogoari dagokion edertasunez yantzi araziko dizkizute gure ederkera berezi onek.

Olerkari-beñiak

Urteoro bezela, aurten ere, eusko olerti zuaitzari kima beñiak ernaitu zaizka. Oietxek dira Eusko Olerti Egunaren emaitzak. Olerkari beñiak sortaraztea gure elburua.

Taldetxo bat, bederen, dagerkigu. Zaitegi lenen. Azala gogortxoak dakarki; mamia gozoa alare. Leundu beza, esakera. Éreztu beza kera, estiloa. Gaiñantzekoan bete-beteko olerkaria degu Zaitegi. Ikus astiro, irakurle, liburu-txo onetan bere bertsoak. Etzaigu olerkari motela izango gazte auxer, etorkizunak erakutsiko digunez.

«Loramendi», maitagaña il zitzaigun. Berak eraindako azia, nunbait, senide tartean ernaitu egin da. Gaztelu, kaputxino gaztea, «Loramendi»ren kidekoa zaigu. Aren irudimenaren aberastasuna, aren berso naroen ots betegañiak, aren gaña Gaztelu olerkariak dakarzkigu. Beyundaiola. «Loramendi»k, beretzat «Maite-gaña»ren apaldiak yasoaz etzuan bere burua gutxigoaz etsiko. Aren ondoren, laster zera, Gaztelu olerkaria, ura eldu zitzaigun goimailara.

Ez degu, batere apalago «Bere ereskin ekaiak», apaldi bikaiñetan borobilduta, abesten karmeldar Onaindia'tar Yakoba. Biotz-barnetik datorzkion ekai oiek gizonkiro kantatzen ditu, bertso ederez apainduta. Onek ere Gaz-

telu olerkariarekin senidetasuna dula esan leike, eta oek biok «Loramendi» ren goi-atsak aizemanaz olerti zelaira datozela.

Arin'dar Gotzon'en olerkitxoa yostailua degu. Bertsoyoku zoragaia. Gure euskel neurtitzari bizkortasuna erantsi nai dio, noski. Neurketa zaen eredia autsiaz apaldi berietan biuritasun arigaria dakarkigu. Asmoz eta irudiz txukun eta polita zaigu olerkia, bertso yantziz areago ordea.

Aizkenez Urkiaga'tar Eusebi aipatu dezadan. Olerkari gazteenetakoetan auxen degu lerdeneana. Amaikatxo bertso sotil Erkiaga'ri irakuri dizkiogu. Emengo auxe ez degu lekeitiar olerkari onen yaioenetakoa. Ez dio, alare, itxuskerik egiten; seme aroena ez-bazaio ere bere apaltasunean edertasunik badu «Txintak».

Pagadizabal, Urkidi, Ametzaga, Arizubieta, Sagartzazu eta Muxika andereñoen olerkiak oniritziak, epai-maiekoagandik izan zaizkigu, liburu onetan argitaratzeko. Ez dira nolanaiko olerkiak, goiko mailara eltzen ez badira ere. Amaika kaskaigoak erdel izkeretan poesi bezela yotzen dituzte. Orixe'renak aitatu bearik ez. Naiko bai-da norenak diran yakitea, aren olerkiak eder etsitzeko.

Eusko-Poematxoak


Olerti-gudarako iru poematxo eskuratu zitzaizkigun. Tamalez, ordea, epaiak, sarirako, etzituen gai-arkitu. Alaz guztiz ere «Oreaga» eta «Erdotzatik Ziortzara»rentzako

ohorezko aipa eta eun laurleko saritzat eskeintzea erabaki zan, olerkarien kementasun eta gaía nolabait ordaintze-
aíren.

«Oreaga» poematxoa, ementxe irakur dezakezu. «Er-
doitzatik Ziortzara» ezin argitaratu izan degu, oretarako
beste 130 oíialde bearko genduzen-ta. Luzetxoa eta, agian,
iñuntxoa. Baditu poema onek edertasun ugari, zatika.
Aukeran motzagoa eta argigoa izan balitz, poema bikaiña
sortuko zuan Urkidi yaunak. Gaia, berez, kementsua,
yakingaía eta noizik bein irudi bizi eta sotiltasunez
apaindutakoa da.

«Orixe» rena ere emen dagerkigu, irakuí dezazun.
Olerkari gorengo oíen asmaketak beti dira atsegin.

ARIZTIMUÑO 'TAR JOSEBA



BOST LORE

I

MENDIKO LILIA

Ene, Belabi-mendi !
Ezin nik zu aantzi !

Garagañil goiz batez
Eguras naiean,
Muñoz-muño nabilzu
Zure belaíean :
Leizaran egiz eder
Zure oin auíean.
Txit mardul dago Izadi
Ain egal ezean.

Txoriak abeslari
Bigun ipaíttoa :
Ai nuke beti zugan
Nere egoitzattoa !!
Eguzki'ren muxu-pa
Datoíkit ondora,
Goíotorik gabeko
Laztantxo beroa.

Zugan darkit Izadi
Aíai, xamuí, ezti :
Orlaxe det ezagun
Gain onetan beti.
Ba-dituzu loreak,
Zuaitzak ederki :
Zorion oro zugan
Arki al ba'ledi !!

Ene ! Bai lore edeía
An, garo artian :
Ezin aspertuz nago
Argan bi begiak.
Gauean intz goxoak
Ikutuz oíak,
Apain dago, Belabi,
Zuk soítu-lilia.

—Lilitxo ! Bakaíik zu ?
Bakaíik mendian ?
Besterik ezin sor al
Belabi maitian ?
Lotsaz bezela zakust
Kutuntxo neria....
Esaidazu, ba, zerbait :
Aska mii txikia.

—«Bildur nauzu, txit bildur...
Aizpak ba-nitun nik.

Erne ziran : lengoan
Eskutzar aundi bik,
Or, eraman zituzten,
Txit urun emendik....
Dolor, zeken, gaiztuak !!
Ez dute biotzik !!!

« Izadi emankora
Aberats da beti :
Aren aginduz nago
Emen, geldi-geldi.
Gizona zer ? Itzala.
Buruz yantz ba'ledi !....
Ez luke, noski, izango
Ainbat tentelkeri.

« Ez, ez zakizkit lafi
Lagun, gaur, geiegi :
Batzuk lendik zaituztet
Adiskide mami.
Maite nazu, ba-dakust :
Ez, bada, ikutu ni.
Luzaro biziko naiz
Zuretzako beti.»

Lilitxo ederaren
Eske lotsatiak,
Oso bigundu dit gaur
Ba'runbe guztia.

—Gora zazu Yainkoa
Zabal zure usaia—
Otoi luzez daukazu
Gaur olerkaria.

Pozik noa etxera ;
Txit naiz zoriontsu :
Belabi'n loretxo bat
Det nik gaur eskertsu.
Ez nik kalterik egin :
Txit nago baretsu ;
Goi-Yauna nere alde
Zait, noski, agertu.

Gaberdin burura zait
Amets txit astuna....
Belabi'n ez dagola
Gaur nere kuñuna....
Gerta ote diteke
Amets egiduna ?....
Nai orduko ez zait gaur
Etoñi eguna.

Lauak !! Arintxo nintzan
Mendiruntz bidian :
Ba-nun ikara eta
Dar-dar biotzian.

Asnaska emen nauzu
Atzoko tokian....
Naigabez erori naiz
Kordege luñian !!!

—Lilitxo ! Nora zera
Nigandik igesi ?
Garoa emen dago,
Ta, zu ez ageri !!
Nor izan da gaiztoa ?
Nork zaitu ebatsi ?
Miñez nagokizuke
Gaur geroztik beti.

.....

Bein lore bat maite izan....
Mendiko lilia !!
Ikuitzen bilkur nintzan
Ainbat nun maitia.
Añotzak eraman dit
Kutuntxo txikia....
Negañez bustia det
Geroztik begia....

Ezin det nik onetsi
Ebasle maltzuía :
Iluna sartu bait-zait
Osoro bañura.

Belabi, ez zak sortu
Lilitxo biguna,
Iñorentzat ez neka
Gaur-geroz burua.

Oi !! Belabi !! Belabi !!
Nik zaitut aurian,
Iñoiz ikusten ba'det
Lorerik ontzian.
Lilirik ezin bizi
Ontzi kaxkañian....
Lurtañak sar ba'leza
Egi au senian !!!...

Oi !! Belabi !! Belabi !!
Nola zutzaz aantzi ?

II

ESKARNE

Ogeigañenez, egi-egia
Idazten asi natzaizu
Leño txikitan zure biotza
Agertuko ote ba'nizu.

Gotzon-igurtzi ezti-biguña
Goitikan ixuri zaizu :
Orixe zaitzen alegin aundik
Amatxok egin dizkizu.

Zortzigařena omen zaitugu
Amar puxkako sendian :
Beste guztien edertasunak
Ortxe dituzu batian.
Anaiengandik gurbiltasuna
Oparo dezu senian ;
Aizpak emanik ezti-ixurika
Leun zaitugu beti itzian.

Urdin begiak, muxua goři
Aoa txiki polita.
Diz-diz ileak sortatxo bitan
Oso poliki ipiņita.
Ibili arin garbi lerdena
Besoak ongi bilduta,
Muņo txikian, zelaian ere
Zure berdiņik ez da-ta.

Ezin aztu det. Ořil-erdian
Lařosak zabal naiean....
Txuriz istatsu, begiak apal
Eliz aundi edeřean :

Zu txit poliki. Lagun multxoa
Zenduen aldamenean....
Yesu maitia Yabetzat zendun
Ogi txuriz biotzean.

.....

—Zertan abilkrit, ene biotza ?
Zer dek asperen-negañez ?
Erbesteetan ibil ondoren
Zer dek bildur eta ikarez?
—Zer dedan galde ? Ez al dek ikus
Sagartxo mardulen ordez
Galañaga'ko egia dala
Osoro bete arantzez ?

Alako lore txuri polita !!
Berdiñik ez zun izaía !!
Erbeste-kutsuz lausotu zaigu
Ain lerden zegon lizaía !
Non da izkutatu, biotz bakuna
Loitu dun esku zakaía ?
Non dezu, maite, oñil-erdiko
Eñitañen poz bakaía ?

Ikastetxetan ibil zitzaizun
Amabi urte betian :
Atzeñi idaztiz irentsi zizun

Eden txara biotzian.
Irakurgaiak, yolasaldiak
Oro erdera latzean....
Intz goxo gabe, ora igarturik
Eusko-loria ontzian.

—Berandu!!... Ama gaxoa, baña,
Negaréz sukal-txokoan....
Aita saminez non ote dabil
Zotiña ezin itoan ?
Izen edera galdu alabak
Auzo ta inguru osoan....
Neuk be negara begian dizut
Senide mindu alboan.

Aita eta amak, ez yakin nonbait
Oker-bideak zein ziran :
Eskarnek ondo zekin bai yakin
Lasak non egon oi diran....
Zurikeria eta itz ederak
Izan zitun ugaritan....
Ai, enetxoa !! Zer ikasia
Ipiñi dezu ludian.

.....

Belar-zelaian esiak asko
Mañak ugari langetan :

Gure buruak nola ez zaitu
Izanik askoz obeak ?...
Itxu gabiltza, ene maiteak!!
Ez zainduz gure loreak...
Alper-negaía ekaíko du
Ostera ere erbesteak.

Belabi'n nuen ene liliaz
Ainbat nitzaizun ni mindu!!...
Esku zakar bat Galaíaaga'n... Ta,
Oíetxek oro egin du.
Gure loreak nora doazen
Esateko ez agindu !!
Yesu ! Zuk beti poztu naikezu :
Samin au nola, ba, arindu ?

III

IMANOL

Anaitxo, zutzaz det oraingo aldia.
Maitetxo bait-zaitut : ez da aíaía !!
Beti begietan zaramat yaía,
Goguan yosirik det zure irudia.

Amaika amets eder
Ba-dizut egiña .
Alakoxea da
Zutzaz dedan miña

Amona gaxoa, miñen eztigaí,
Gora zegon eske zerbait zezan zaí.
Udazken oriak, noizbait zun ekaí
Guztiok genduna lendikan egaí.

Gotzontxu beña,
Muxu txuri-goí :
Auzo buruauste
Geron alaigaí.

Zaldibi'tik ziran osobak agiri....
Ba-dakaé poza, eskuetan sari....
Iñude besoan loretxo bat txuri,
Aldatz goitik bera lauko bat nabari :

Bost dituzu, baña,
Lo doa poliki
Laister dezukena
Ukuzpenez garbi.

.....

Mutiko ninduzun. Begiak urduri.
Etxean zer gendun, maiz bear ikusi....

Aita dabil txintxo, legor eta busti :
Osasunaz ez da batere bildurti.

Goiko-Yaunak dio
Laguntzen zerutik,
Ez degu goserik
Izango ziurki.

—Ikastetxetik gaur arin zaiz etoñi,
Aurá zaitutzeko, eder maite ori.
Artoa yoñatzen bear det nik ari....
Atoz, bada, laister, laguntzen amari.

Emaiozu muxu
Anai tikiari.
Bai edeñá dala !
Gotzontxu dirudi !!—

Ni, etxe-atarin. Aurá belaunian....
Or da, betik gora etxeruñtz naian
Lañdi'ko Mañaxi ; pañá ezpañian.
—Ene potxolotxo!!... Zer det nik auñian?

—Mañubi biguñña !
Izartxo edeñá !
Onen idekorik
Non arki ekeran ?

.....

Basetxe inguruan, lore gutxi omen !!...
Zer ote dakite, guk zer degun emen ?
Lañosik atarin ez da sortu aurten....
Gotzontxu bat, baña, gurian gelditzen!!!...

Odeieta bera
Nabaitu det yeisten :
—Ez igan auñera !
Zaude gukin! Amen!!!

Sei urtez gerogo, etxetik zait irten
Ikasteko, Imanol : urira da yuten.
Euri egunetan neuk diot laguntzen....
Íri-par dario : lepuan det artzen.

—Uste det maitetxo,
Zaitudala izanen
Ikasle argia
Orontzat poz aurten.--

Ikaslea du betoker arotza :
Izketan beñitsu, zimura biotza.
Maitasuna agertzen txit legor-zikoitza....
Ikastetxe artan bukatu da poza.

Anaitxoak txuriz
Gaur dirudi izotza :
Ain galdurik dator !
Au malko mingotza !!!

Alaitasuna ez betiko loria.
Laister amaitu da guk gendun pakia.
Īlabetez gero gaxorik maitia :
Musutxua zurbil, ĩlunik begia.
Naigabez dago, an,
Ingurun sendia :
Galtzen diyoa-ta
Etxeko lilia....

—Ai gure potxolo !! Landare garbia !
Euskaldun baratzan, mardulki azia !
Ikastera yunez, galdu zuk ontzia !!...
Gaur donokian da, gure poz guztia.
Amatxo nega'ez
Samiñez betia :
Nai, ta ezin txuka
Bere min bizia.

Belabi'n loria zidaten eraman....
Gero Eskarnetxu, enetzat galdu zan.
Orain anaitxoak egin digu egan....
Ezin asmatu det, nola bizi naizan.
Ene Yauna ! Goitik
Atozkit laguntzan :
Poz osoa beti
Dezadantzat Zugan !!!

I V

IRIZAR

Antxiñatiko etxia
Basetxe zabal aundia,
Euskaldunen poz betia.
Goiz goizetik goiz, aruntza dizut
Zuzendu nere begia :
Aren atzetik yeikia
Uste bait-det ikustia,
Txit aundiro eguzkia.

Gure asaben egoitza,
Ainbat belaunen emaitza,
Abizen askon oroitza.
Zure otsaz zait oso bixkortzen
Nere bañuan bizia,
Zu bait-zaitut nik maitia :
Ez ainbat amak semia,
Ez txoriñuak umia.

Zure ingurutxo alaian
Eder dirudi zelaian
Sendi ugariak maian.

Arto ereintza orain bukatuz
Ba-dute poza musuan.
Añautzatxua eskuan,
Yoñai ñikia onduan,
Goiko pakia bañuan.

Amairu seme-alaba
Izan dizkizu Maria'k
Mardul eder ta garbiak.
Lorontzi oñek iraungo luke
Oraindik txit luzaruan....
Aña du, baña, bañuan .
Yabe arotzak eskuan,
Ia eun urte buruan.

Maister zaizunak, lanian
Gogor dagi, geienian
Itxaropen laburñian.
Irizar eder aintzin txurian
Ba-da marmaña gabian :
Lanak ezin ar mendian
Ez egunez, ez gabian
Ez uda ta udazkenian.

Anai zañena Kuba'n il,
Bi zaizkizu apaiz egin,
Iru Amarika'ra yin.

Pixka-pixkaka etxea ia utsik
Utzi dizute bakañik :
Mirentxu gaztea azkenik
Amari begik itxirik
Lekaime yun zan ixilik.

Gora doa orman untza :
Oni dagio laguntza
Sasi ta ote zoñotzak.
Soro gizenak bañuti daude....
Lañean zikiro motza.
Ugari non-nai lokatza.
Au al da euskal-egoitza ?
.....
Ez lertu ene biotza !!!

Ene begiei negaña
Dariote mara-mara ;
Bañuan dizut ikara.
Geroztik beti oiuka nago ;
Yaiki zaitezte asabak !
Ikus zuen lur zabalak :
Oso yosi ditu lañak....
Au lana dagi etsaiak !!!

Egun argiz naiz gabian,
Malko det sañi begian :
Ezin naiz egon pakian.

Ene negaiaz iñortxo oraindik
Ez da kupitu agian :
Ba-dizut min biotzian....
Bakarik bait-nazu luñian
Ene naigabe aundian.

Min nintzan len lilitxoaz...
Zer dagiket oraingoan,
Ez ba'det iñor ondoan ?
Nere ai-otsa ez da entzuten...
Ez dute nai ar gogoan,
Ezta ere sar kolkoan,
Egi aundi au beingoan....
Ez gabiltz bide erosoan.

Pañez dabilzkit auzuan,
Yakiñik zer miña dudan,
Zu maitez ene bañuan.
Atzeri yolas ta aberaskerik
Dituzte oiek buruan,
Lur yoko dezu neguan....
Ba-nagoke ene txokuan,
Zaitudalarik goguan.

Ene basetxe maitia !
Lañoiz zaitut estalia :
Ez da agiri eguzkia.

Len zure biran, pozik nenbilan,
Liluraturik guztia :
Atzo malkoz det bustia,
Zure ateko aña,
Ezin legortuz begia !!!!

V

A B E R Í A

Lizar ta sagar etxeak auéz
Lau aritz soro ertzian ;
Ernio goien, Aizkibel dakust
Buruntza'ren gibelian :
Amets urdiñen artian.

Gaste-aroa, egun alaiak !!
Gure Euskaleñi landuan....
Yainkoa maitez, nekazaritzan
Miñik ez ene buruan....
Beazunik ez bañuan.

Azke txoria, egun-uñatzez
Abeslari ta beñitxu :
Oñen ondamuz ez ni iñoiz izan...

Ez zait burua txoratu.
Ni ez etxean aspeitu !!

Amonatxoak erakuts dizkit
Asaba zaáren garaitzak :
Aien kemena, biotz edeá,
Elkarganako onginaiak,
Maitasun-zitu garbiak !

Antxiña-antxiña, zure aldiak
Lañopean dira saítzen :
Norbaitzuekin guda gogoák
Omen dituzu egiten :
Oro betiko zapaltzen.

Askatasuna ! Eztizko amets !
Zure alaba liraña :
Eder txaratan, gogoz azi da
Bipil indartsu, bikaña.
Aren begien oztiña !!

Lartaun, Onintze ta Lekobide
Asaba zaar maitiak,
Ez, ez dituzte beriz ikusko
Iñoren mende efiak :
Ez yopu beren semiak !!

Goiko-Yauna'ren mirabe izatez
Beñere ez dira lotsatzen.
Uztaíi bigun ta maitekor au
Aiek ez dute ausitzen :
Ezertxotan ez ezesten.

Nor bere yabe, alkaíen lagun,
Langile zintzo garbiak....
Idekorik ez ; iñoren zale ez.
Goien dituzte begiak :
Beren Yabe'gan yaíiak !!

.....

Amargaíenez loratua zait
Etxe-aufeko sagaía.
Udara artantxe zerura da igo
Nere amona xaaía :
Ba-nun begian negaía !!

Amonatxoa eta Abeía
Loretxo zaizkit biurtu
Irudimenak goiz-argi antzo
Xoragaíiro apaindu :
Goía oztin aldatu !!

Naiz itulian ta lañañian
Oiek naukate bizirik.

Lo bakoitzean bien muxuak
Laztanten ditut poz-pozik:
Biotzak gañez egiñik.

Beti pakean, alkar-maiteak
Suma ditut eritañak :
Au zoriona ! Lore bi auek
Ez ikusko iñork igañak !!!
Dirauen arte lurtañak !

.....
.....

Lengo sagañak, orain arantza....
Ingurun ez det lizañik :
Aspaldi ontan gora-bera asko
Ikusi dizu Belabi'k....
Arekin ere bai ta nik !!

Odei goñiak erukañiro
Ipiñi gaitu bestela:
Askotan uste norbaitek zizun
Emen eririk ez zala.
Iñork azpian gauzkala !

Eun urte, baña, ezer ez dira
Eri baten egunetan :
Bere izatea ezin galdu du

Alde órén orduetan....
Naiz beti izan ilunpetan !!!

Baúti eder mardul zabalán,
Goseti batzuk dabilta :
Oien sabelak gizendu dira
Gure asaben garitzan :
Oía gu nola gabiltzan !!

Anai bi ditut, atzo goizean
Gogor buúukan ikusi :
Zakur gaizto bi ote nituen
Ordun zitzaidan iduri....
Geroz ni beti bildurti !!

Etxean gendun zori edeía
Igesi dabil aspaldi....
Bakar batzuek sumatu ditut
Geroztik saí negarti.
Gutxitxo elkar-maitati !!!

AMAIA

Bost Lore Yaunak dizkit
Noizpait erakutsi....
Edeñak ziralako
Nai nitun gartsuki.
Aspaldi tximel daude!
Nork ditu eruki ?

la det etsi
Beti-Betiko,
Izango ote dan
Besterik....

Ludi kaxkañan
Ez da-ta agiri
Lilientzako

Lur onik....
Bañan Goi-Yaunak
Zelai bat ba-du
Bere esku indartsuz
Landurik :
Aruntza noan
Gaurdanik!!!

ETXEBERIA'TAR PANTZESKA, S. J.

BETI LAGUN

*Animaeque, umbraeque silentes.
Virgilio*

I

Non nago ? non aut ? ez ote da auxe
neretzat lengo Tolosa ?
Ez al dezaket entzun beñiro
mintzo goxo aren otsa ?
Bego negaía, luñindu bedi
begian malko mingotsa,
alare ez uke nik iregatik
negar egitea, lotsa.

II

Ire eñainua ikusten diat
nere begi on txingaía ;
argi biurtu dela niokek
ire ezpainen íñi-paía.
Dante'ren itzal isilak beude,
betorkit neri ire gaía,
bete dezadan azken-aginduz
eman idaken beaía.

III

Bioz-bertsoak egin nai eta
Yainko bīla nauk oldartu ;
ik esan idan bein ta beīro
ontan nendīla leiatu.
Lagun egidak argi ořekin,
nere bigařen aingeru
igan ikusten diat garbien
Yaingoikoaren eřainu.

IV

Yainkorik ezin, ez ta aingerurik
gorputz-antzean iduri ;
siñestez iñoiz konturatzen nauk
itzalpean nautela ni.
Iñun ortatik bizi ontara
i aut bitartean argi ;
eřainu onen dirdaia lagun
aurean zeuzkeat beti.

V

Beretarbiden, ituři askan
agertu didak begia,
osto tartetik iragazirik
eguzkiaren izpia.
Nere auřetik, ibili gabe,

igaro uan mendia,
ikusi genin basora antzean
loretan den sagastia.

VI

Len lagun zintzo gorputz bizitan,
orain are, lagunago,
tokiz aldatzen nekerik ez duk
ez egal, eta ez zango.
Begi-orde ok aurreko ormara
eguzkiak yota baino,
zintzogo abil nere aurrean,
abil ni bizi naizaño.

VII

Oroitu ta aztu, buruka diat,
tartez bakar eguzkia,
erainu onek irauten balu,
auxe nere zoria.
Goibeltzen ba zait, gainbero bedi
bego bañen au gorria,
gorputz ustel au, gandu nâsi au
daiteken arte eroria.

VIII

Biga atera duk, begiak lauso,
ikuñu-zoko beltzetik,

begiak urez igurtzi eta
lauso oreak aldegiten dik.
Egun otako negar-malkoak
txuka ditudanean nik,
ni il arte ez beza Yaingoikoak nai
ire erainua galtzerik.

IX

Nere bigarren algo-aingeru
nere Yainko-erakusle,
il arte lagun, ortik onera
etzegok len ainbat bide.
Bakar-bakarrik nakustenean
yendeak esan bezate :
bekokian dik aren itzala,
lagun dik oraindik ere.

ORMAETXEA²TAR NIKOLA

« ORIXE »

«LIZARDI» GUREAN

Yeiki naiz zintzo. Yantzi baino len
luzagaleak atera,
Aralarmendi eguzkitan da,
irten nadin balkoera.
Sare-gainean erdi-etzanik
bi besoak gurutzera :
osasuna ta poza zer diran
emen etoñi ikustera.

Aizea arnastu, listua kurka,
i goiz-listu ugariren poza !
oarkabetan ari naiz ta ari
eskuz leguntzen okotza.
Eskui aldeko zoko artara
doakit begi zoñotza
laino zuriren isarapean
lotan dirudi Tolosa.

Amandre Eguzki, zure argi-izpiz
uñá zazu oge ori,
leiotik legun sartuz, zabaldu
gure « Lizardi »'ren begi.
Lainoa yun da. Bion etxe-erdiz
Yaunak muño bat du yañi.

Alda al ba neza ! Etsi dezadan,
Urtzi'k nai bezala bedi !

Talo-esneak ezti az yan ta
—arek an kaleko opila—
burutsik eta kolkozabalik
eskuan euskal-makila,
saietsetara listua yaurtiz
noa lagunaren bila.
Aren begira Lizartza'n nago.
Ager bedi beribila.

Arontz onontza etxe bi beten
e'fege-bidez nabiltzu,
Tolosa aldera geldi geldi ta
Betelu'ranta, aldiz, usu.
Motxago onantza eto'ri a'ren
oraindi itzultzen dut buru.
Nabil ta nabil, nik nai orduko
ez da beribila agertu.

An da ! Txakurak nagusi-usmoz
dardar baitabil isatsa ?
makila ala nik. Laztantzekoan
esku artetik zait lasa.
Aren oinetan ge'ria makur,
nâsiz buruko kalpatsa,
ustekabea gur egin diot,
ez kunplimentu prantsesa.

On ta gaitzaren tarteko paía,
aren oiko paí-íria.
Aldapa goien Orexa an dugu,
« munduaren ipurdia ».
An iru egun mendirik mendi
arnastuz baíen biria,
eder-gosea berdindu ta aztuz
zokoan dan lantegia.

Zopa lodia, baba goía,
yanari dana etxeko,
oilaskoren bat ikuluan da
laztasun au leguntzeko.
Mendi goseak eraman ditza
iluna datoíreneko,
baitik bat, goiko ituíi artan
ur otzez ba gina aseko.

Afal ondoan, ni lotia ta
ua mendiak eioa,
« emen duk oia, ez iñolare
irea bezain goxoa.
Baina ama zanak egina digu
eioz ta yosiz osoa ;
laxkaía bainan etzaiok goitzen
uda goriko beroa.»

Oaburuan baso bat lore,
isarak mendi-luía,

Egin lasai lo.... Baina leiotik
begiratzea du grina.
Azpian dauka Tolosa, aren gain
iluntze-gandu arina,
gero lodigo, loa bezala.
An dauka txokondo mina.

« Egizute lo, ene zatiak,
sar nadin nerau lorara,
adiskideak goxatu didan
baseñi-oge ontara ».
Jesus amenez lokartua da.
Beia ganbelan adarka.
Yeikiko ote naiz ? Baztartzen al dut ?
Bainan ain sañi isildu da.

Bei ongi yanen auznañra soilik,
esnai dagonak entzuna,
mañurik ez da, zintzañ-otsik ez,
urun kaleko oiartzuna.
Aldamenean tren-txixturik ez,
lo dago nere laguna.
Goiko Yaun arek eman bezaio
eun bat urteko osasuna.

ORMAETXEA'TAR NIKOLA

« ORIXE »

GALBURUA

Basetxe-osteko solo zabalean
Zibuka ari aizen galburu edeña!
Euzkiak maite aun ta ik aizea maite....
Eu baizen argia ez don goiz-izaña.

Gau gentsatsu-pean zeruko intz-tantoak
Garaztaten aune maitez.... Bitartean
Iruten ari don ilargi-zurbiñ
Argi-izpi txurizkak gal-solo gainean!

Sortaldeko aizên bildurikan ez don;
Soñeko oria ez yausna sitsak yaten;
Izozteak ez aun kizkortzen. Ez aune
Zargorik zimeltzen, goñiñak margultzen.

Arduraz zaintzen aun aingeru on batek.
Urezko eraiok, euzkitan, maitasun
—amesez gainezka; (baseñietako
Neskatx lirain yaukal ori!)—izoña ditun!

Ene neska orail maitegañi ori!
Ortziruntz begira! Mariarengandik
Antzo, urtengo yon Yosuren gorputzak
Eure mamin bigun ta txuriagandik!

NERE BURUAREN ZORITXAÑA

Beiñola, enbor sendo ta buru zabala
Gora nekartzin, zugaitz tantaia bai-nintzan.
Itzalpe ozkiña eskeñi oi nien
Itari nekatuei biago garaian.

Gaurkoan, beñiz, andu-motz, éro irotua
Baizik ez naiz. Irureun urte epean bizi
Ta ber-bertan ekaitzek adar oñitsuak
Ausi ta tximistak enboña erdibi....

Kemiñak artutako sutondo alaian
Aitonak berotuz nere subila austu,
Ta nere buruaren atalik onenak
Ke mordotan zerurantz ner'aurkez igo du.
.....

Guruntz naiaz zorneak biotza ukitu dit.
Nere ondoko sagar gazteak gaiñezka
Lore txuriz : maitale bikoitzak iduri,
Ingumak egátzean udabeñi deika.

Ara ! agure akitu eta uratu oni
Oñi mengelen kimak anduan ernetzen....
Alare, biziaren minkaitza irents bear !
Nere erauzi-atalen negaéz izanen !!

Marneffe-Belgika.

ZAITEGI'TAR YOKIN, S. J.

GAZTEAREN ERIOTZA

Il az ta ez dakik !... Baiña egia dok !
Eure begi oien argi-izpia itzali
Ta marguldu dituk eure ezpan goñok,
Ta, benetan, il az, gazte maite ori !

Lore samurá intzan zimeldutzekoan !...
Mitxeletak lora zurienari lez,
Neskatil liraiñak matxo egitean,
Oroigaien ará biotzan utxi dausk.

Ordutik bost bidar udazken-aizeak
Zugaitzen-oríak aldatu bai-ditu !
Biotz bañu dana ar baltzak yana daukak,
Arpegiz mardula nabari izan-añen.

Il az ta ez dakik ! Baiña egia dok !
Eure begi oien argi-izpia itzali
Ta marguldu dituk eure ezpan goñok....
Ta, benetan, il az, gazte maite ori !

Urtxindor laguna txioka negaírez
Ilobiruntza neuk eroatekoan,
Ta zeruko izañak begira samiñez
Iñlargo-argitan luía emotean.

ATZERI-ZEAR

Oinpean, zugaitzez yositako oiana.
An... goiko-aldean, ortzi izartsuena....
Eta aúfe-atzean, gura dodan dana !

Ala eta be ezin etsi atzerian !
Itxaso-gaiñetik, aizen egoetan,
Neu-gogo ibilkoia doa egazean !

Bein baten Euskadi ederean nintzan !...
Bertan, areitz mardul deuna zutunik zan.
Lorak aruntz-onuntz areitz-itzalpean....

Areitz-abara andik alde egitekoan,
Nere ama samur onak emon eustan !
Ma maitea eiñaz, « Maite aut » iñostan !

Yoan beara izan neban aberitik.
Areitz-peko neure lorak ordudanik
Izango ete dau nire gomutarik ?...

Marneffe-Belgika.

ZAITEGI'TAR YOKIN, S. J.

EUSKEL-GORULARIA IXILDU DA

Itxaso ertzean yauregi zar bat zan.
Uréndik, euzkiren yauregi argia,
Urundikan, itxas-txorien abia
Edo artizaía zirudian.

An.... itxas-aldeko areto erdian
Iruten ari zan euskel-irulea.
Len, bere begiak, liñuen lorea
Bezainbat urdiñak omen ziran.

Eguzki-argitan ta ilargi-argitan
Eunduten ari zan ezkontza-yantzia.
Aren abestia zein zoragaía !
Oi ! zeñnen lirain ta edeía zan !

Itxaso zabala nare-bai-narerik !
Itxaso-kaiua egazka ziyoan
Ta arantzara yoian ontzi-aga puntan
Abestia aditzen koka ixilik.

Ontzi txikaíean ziyoan gaztia,
Ur beti ikaradun etxe-yauregira,
Aitzei begirake, goruntza begira,
Entzen naiean zan eresia.

Bitartean, itxaso-olatu maltzuak
Gazte ta ontzia iruntzi zituan.
Iñoiz etzan yakin euren bañirikan....
Ori egin eban iruleak.

Orain, bañiz, begi areik, zoritxañez,
Ilun omen dira gau ta egunetan...
Betazal aundien itzalpe bañuan,
Artizaña odei baltzetan lez.

Ita eta ira urzko goruan
Neskatil liraiña iruten ari da.
Ezañi linaian kiñu-ari latza
Ta biltzen dau zuri-mea ardatzan.

Gaur, ordea... ezer ez ei dau abesten.
Inguru danean olatu-oratuak
Eta auntzen txintxañi-ots geldi-motelak
Besterikan ez oi dira aditzen.

Marneffe-Belgika.

ZAITEGI'TAR YOKIN, S. J.

ESNE-BEIA

Neure ibar bedartsu zokotik datořen
Añan-ots alaia entzun dot atetik.
Laía moztu-ala yaten ari azen
Neure bei mardul oi, biotzez maite aut !

Arat-onat isats luzea astinduaz,
Eño-zain lodia diz-diz ikaraka,
Lepo-makur, buru-arin etortzen az
Érape-azia zimurtu daiadan.

Eskuz oratuta bi éoetatik,
Zaragi bizia bezela lauskituz,
Esnea ereika yarion-azirik,
Kaiku-ertz goraiño apaák igo dau.

(Esne koipetsu ta txuria nai daunak
Bitatik batean obe izango ditu
Atzekalde aztun ta zabalekoak,
Atzekalde arin-estukoak baño).

T'eure buru txikar ori yasotzean,
An... itzal eitean betazal andiak,
Islara, begitzar-biribil gelditan,
Mendi-baso orleia, zeru urdiña dager !!

Marneffe-Belgika.

ZAITEGI'TAR YOKIN, S. J.

MAITE-EGARÍ

(*Nere kurutzeari*)

Amets...

Biur bekit amets auxe mami.

Lore...

Erne bekit lore polit ori.

I

Umetxo ni.

Baratzara ni yun,

Atsedan artzen nun...

Biotz-miñ bait-nun.

Itun!!

Izan ordun

Maite-egañi bizi.

Bai nik ;

Luñak ez dik

Nik aiñeko, noski.

—

Mitxeleta.

Ukituz datorkit...

Dirdizka bait-dizkit

Begik, bustirik...

Esku !!

Neure !! Estu

Dezadan maiteki...

Autsa !!

Ux !! Au atsa !!

Ez maite lizunki.

II

Yun dira urteak...

Eman, bai, ematen bizitz onexek

Naigabe beteak...

.....

Aztun biotza,

Malkoz begiak...

Artuko ba'lizkit ene atsartez,

Neke auexek

Baratz maiteak.

—

Betiko zugaitzpe !!

Entzunak dituzu ene zotiñak ;

Bai nik zu maite.

.....

Uřetxindořa...!

Arin nituzke,

Abesti xamuñez, maite-goseak,
Ezin aseak !!
Neugaz ba'nuke !!

Atzitu !!

.....

Ai !!
Kaiolan sartu ta
Goizean
Ilik arkitu.
Otz-itxura utsaz
Oñela, itun-pozkile !!
Bařena zauritu.

III

Negar
Ene begiok....
Maite nai,
Maitagařirik ez nik arkitzen.

.....

Loretxo...!
Noan len-bait-len
Laister bai-zaitut loretxo-pinpirin,
Bai, lertzen.

Deika...!
Eman bezaiot
Pa !!
Lore gain
Malko bero bi erori....
Yainko ona !!
Al det biotzik ?
Loretxo biurtu zaizkit.
Atozkit !!

—

Makurtu.
Nere ezpaiñak bertan yañi-ta,...
.....
Nik musu eman-da
Odolez goñi
Ene lorea.
Bertantxe itz auek
Yesus'ek idatzi :
« Maite ni gartsuki ».

Amets...
Biur bekit amets auxe mami.
Lore....
Erne bekit lore polit ori.

ARIN'DAR GOTZON, S. J.

Chevetogne-Belgika.

MAITASUN-GARA

Maitea dut zama,
maiteak narama !...

Maiteak ziñez, bizitzak aiña,
kilimatzen nau bizkor. ¡ Ots, baiña !
Oraingoa benetan ez igazkoa,
bêra ezik ortzera baitut igoa.

—

Maitasun-leia
—argi-urátze alako—,
ernemin nun aráts bañen-urdiñean.
Yainko-bizia
eguzki nuela goiko,
kezkati ibil̄ia naiz egun goizean.

¡ Maitea bil̄a !
An-or, atsege, naiz bil̄ari,
ezin topo, ez kañikan ez bidetan.
¡ Pagopean zegon ! Norbaiten zai zeman...
Intzetan il̄edia naroki...!
¡ Lerden, sotil̄a !

Tut ! lurzaleok, tut eder-kantetan !
Edeía ote ustelkor gauzetan ?
Nardatzat dut oro Maiteño aldean ;
ezpaitu kiderik gizakien artean.

—

Izar-diztia
batu goi-bitxizko lore-dian.
Yainkozko begiei ¿ argi egiñen ?...
Sagar-mamia
bil, aletan dagon sagastian.
Muñitz !... ¿ Maite-aragia oreturen ?...

Goñizuria
ezin damaio arginabañak.
Lili garbienari dagioke itzal.
Agitz zardaia,
lizañirik ba, Sarats makuñak
bere ile-dia antzezturen ?... Ez aal !

Bakaña dut Maitea, bakar :
danez goiko !
Begitan isla natzakion leiar,
niniz-nini
bainau yañi...
¡ Ain da yaio !

¡ Aiui ! Maitea dut besarka !
Ez dut, ez, iñolan utziko.
Edertasunez geldurik bai nauka,
badut zalantza pozez naizen ilko.

—

—Aski dun-kenaraziz-ukitzik, gogo ;
ezpaitugu bertatik atsegin-aro.

—Ene Maite !
Noletan aut ain biotzge ?
Len ezti-mintzoa
beazun-aroa
orain zait biurtuko ?...

Gaiñezka nun biotza pozaren pozez,
atsegintokia bañuan bai ote,
¿ Nundik, ba, gogoñean iltzez oiñazez ?
Kedatz-pikoña sutontzi gorian lez,
oiñazetan arima luñin liteke ?...

—

Manteak badu sutegi :
biotz au erdoidun burni.
Elkañen maite-auspoak
labe digu sutarazi....

Maiteak idurgelan
bainau eratzan.
Gau ta egun lan ta lan
gogo-aldaketan.

Gizon beñirik-dasaidanez-ez dazan nigan:
beñi gura nau, zerutaña.
Ta goi-yauregira nadin gogokintzan
yañaitu beña.
Su-ñaña !
Su-ñaña !
¡ Au maite-miñaren indaña !...

—

Zeini dantzut...? Maitea oiuka !
—Abil ! Nañauñat... ¡ Oa lasterka !
—Bai, to ! Ire dardak nik saiesturen.
(1) Ama gir gira—nai duk?—, iokatureñ!...

Ene ! Yainko eiztari, bai aizen trebe.
Eskuan uztaia beti duk arbelge.
Eñemiñetan ¡ai!... biotz-mamia,
iaurti eztiak, ba, uré-gezia ?...

.....

(1) Ume yolas bat. Begira Azkue'reñ « Euskal-iztegiñ »: « Ama »
itzpeañ dakarrena.

Gezidun basauntza niteke.

Oiñaze-zirikadak

basorik baso
naramake....

Yiuñiz oiartzunak

ditut yosiko
eten gabe.
Uñikaleraziko
al aut. Maite ?...

—

—¡ Abil !, otska beñiz.— ¡ Egik gorago!
¡ Eup, ba ! Yeiki adi, biotz zoro !
Gorago leia baduk akuño,
arin abilke gañurik gañur...
¡ Ozkarbi-goia bezait antzikur !

.....

Nardin arano. Beronen eraz
eguzkitara ioko dut egaz....

Ene Yauna ! I aut Eguzki :
suzko labe, izpizko ituñi !

Ire galdatan
eraka natza,
garbi-miñetan.

¡ Noizko aratza...?

.....

EZTEI-EÁAZTUN

Bide-goienara naizeneko
eztei-oea dagerkit *zuri*.
¿ Nola gai ninteke bertarako ?
Uka dagidan oso neroni.
Zûr nabil ! Zenbat Ni'taz erantzi,
ezkon-yazkia ainbat edeáago.
¡ Oi gogoaran IGANDEZURI...!

Eldu danez, maitasun-eguerdi,
ots, Maite ! Eztei-bestak uréngo.

GAZTELU'TAR YON BAUTISTA
(Kaputxinoa)

Iruña.

BERE ERESKIN-EKAIK

Goizaro atsegintsu. Bere mende, alai,
Mendi-maldan nenbilan ardi zurik zaintzen ;
Latziñak garo-pitxiz, egari ipar leuna,
Zorionak altzoan samur nindun artzen.

Laba gori bai-litzan, sutan itxasoa....
Laster dau euzki yaunak ortz-sabaia gaindu ;
Bere argi kuskua bai-dau eregaí,
Iges zoroan duaz iratxo ta kandu.

Giro ameskor artan gozaro nigarzan
Biozkada bigunak, bañen-suz yaioak ;
Argiz begi-niniak itsu beañean,
Egaz yoakidazan ames-usotxoak.

Basoaren edeña nedan atsegiñez....
Bertatik, ekantz bañi, ta argi-izpi artean,
Begitartera yatan arobi liraña
Masusta goñi, ote, lañen babesean,

Aizeño oiu-zaleak ereskitz etozan,
Arobiz-baúu norbait ba-zegon abesle ;
Oin-ixil, belarriak adi, ara nintzan,
Baéndan yaíz bere zinkurin-entzule.

.....

«Gauan magala-iñoan-egunan sort-oe ;
Agur, Izar, neure lo-zaindari bigunak,
Agur, Ilargi eder, gautáren soroski ;
Betor argia nara, ma-begist egunak.

Len berun izadia, orain odolezko.
Su-zifara datorkit begietaraño,
Yaiez itxaso, leraz dospa euzki-sortze ;
Goñiak dagoz gañak osertz-barneraño.

Oi goi-maitagar ! zakikaz arnas-emoñe ;
Uñe-amesez orni nere irudimena,
Maitari-lora pitxiz biotz nekatua ;
Gaur, ire gaña bekit argirik onena.

Itzat, euzko-Aberri, olerki-liliak,
Ari-ereskin yoriz gotuts-yardunean
Gora dagidan ire semeen izena,
Abesmiña sor yat, ba, biotz-mamiñean.

Igandi at luzaro emon dot aldia,
Begietan negaña, biotz-ortzi añuz ;
Beti gain ebilkidan ire oroi-itzalen
Zauria ezin azal yonak ereskin-soñuz.

Amesko uri-zear, erbestetu-lokiz,
Gaxo ta kupigañi nozu ibilia ;
Zelai, baratz, itxaso ta uriak ikusiz
Irato yatan ia ederman bizia.

Baña i baizen edeñik, begiko Aberi,
Ezton uri alairik, ezton ludin ezer ;
Biotzeko loratzan maitasun-laztanez
Goiz baten sortua az i, Izar aratz eder !

Ire sabela, Kutun, ezton antzua izan :
Goi urdin uri-zear euzkoen usiak
Edonon aurki dodaz, oroigalu iduri,
Izki atzin-eziñez an-or idatziak.

Oi, ene Euskal-Eñi, bitxi kutsugea,
Uñdik natorkitzu, eresiz biotza ;
Mendi ontan didorot atsegin-abaro,
I az asaba zañen endaren baratza.

An, uñin dagerkidaz, argi-eun mez gañak,
Aralar eta Aizgoñi menditzar maiteak,
Anboto sorgin-bilgo, Gorbei adats legor,
Euzko seme leialen ziñez-yaboleak.

Oraindik uñiñago, laño zuripean
Zugatz donea dakust, iduri indañez ;
Bere adar ezeak ta aiten biltokiak
Oro beteta dira gomutaki zañez.

Ibar-zabaleran eta mendiño-ertzetan
Maitagaíak daben antzez banatuak,
Giro armiñez ardik abaroan letxe,
Or-emenka dakustaz euzko-etxetxuak,

Baso-egiak alai, urdiñez zelaiak,
Laíak luíun-yario, kanduz be-aldeak,
Eguzki-estaiz gaña, liluragaíro,
Badozue zek ase gaur, ene asmenak.

Zer yazoten ete yat? Zek goibel yaí-nau?...
Baíuan sortu yataz taupada minduak.
Sañon-alderantz erdel-mintzoera dantzut ;
Aizean egoetan ereski galduak....

Zer da nik dantzudana ? Uri buruetan,
(Antxiñatik nazauan) erdera nagosi,
Baña urín-leku ontan be ituí-ondoak
Gure mintzoren etsai atzeí-elez yosi ?

Ai, ene euzkotaíak, gaizkiñak zarie !
Euskera ama gozoa ainbeste iraindu ?
Soiñeko zarpilekaz menditara yaurtiz
Zeuen biotz-beroa Amari ukatu...!

Oiaíez dabil gaxo, alargun antzera,
Euskaíitzat dabela besoan erio ;
Samintasun-zomoírok éraietan oska,
Ta adur txaíeko belak uruma dagio.

Baiña ar artea, ene biotz, ez ilundu.
Ara argiak dizdiz itxaso-ertzean :
Berbizkunde-egunaren yaiotza alaia ;
Ez zurbildu, biotza, pozaren yaiean.

Susper, aŕen, euskotar lo-lezaratuok.
Ilundi ortatik urten beingoz argitara.
Bulaŕa azkar, biotza maitasun-alez
So guztiok, irikoi, garaitz-egunera.

Zorion-izaŕagan begiak ezaŕi,
Adi ortzira, gora biotz eta gogo !
Giro oroz bego loran anai-maitetasuna
Ta ezpanetan beti geure mintzo gozo ».

Amaira zan ; eztantzut eresik geiago.
Baŕun ixil-unea, ezeren ots baga ;
Zelai-gentzak, batez, gain-oial mea eda
Ta ames eztitan, senik bako, eban laga.

Ordun neuk be baŕen norbait abeslari ;
Ozen, txindor-txinta lez, egistan durundu.
Olerkari leunaren intzira gozoak
Lei aberkoiak yori eustazan loratu.

Abes-aldi txoriak baso-gerizean,
Eztiro dagi urak lats-aŕuan marmar ;
Ni, baŕiz, gaŕur-zear, oldozkor, amesti....
Euzkera, ele gozo, eztaŕian dardar.

Begoña.

ONAINDIA'TAR YAKOBA
(Karmeldaŕa)

TXINTAK

Txori-txinta otsera
goiztxu naz esnatu ;
aspaldiz atsegiña
nai neban bilatu ;
yo dot ara ta ona,
zentzuna estutu,
baña alan eta guztiz
ezin aura aurkitu.

Uri-kaleak zear
sañi ibili hai-naz,
mendi-maldetan gora
maiz neketsu arnas ;
atsegiñen kolkora
pozez daiket egaz.
Eztot zoztoñ-egingo
iñoiz atsegiñaz ?...

Ona gaur goiz-goizetik
bañua kantari,
etxe-leioz sartu da
eguzkia alaiki ;

ta begiraka asi naz
sapai urdiñari,
begi andi lotu naz
argia ikusiki.

Lilitegietarantz
mitxeletak doaz,
izadi itxartua da,
ezta lagun loaz ;
atsegiñerantza ni
be, uste osoaz.
Liñura nabe lorak
luñinkai gozoaz....

Udaleneko izadi
—erditze bikaiña
¿ i ete az atsegin
—ituñi apaiña ?
¿ i, alaitasunaren
adizkide egiña ?
Añen, kendu egistak
bañeneko miña !

Gaurgeroz uxatuko
ditut ames baltzak,
ta betiko aldendu
oiñaze-arantzak,

udabeñi-irudia
maitale biotzak,
txastau lora gozoak
eta utzi mingotzak.

Bertan bera itxi daigun
lengo aldi iluna ;
maite daigun gau ordez
pozkor dan eguna ;
mustau daigun bizitza
ta maitasun-guna,
maite abestia ta
atsegin leguna.

.....

Txintak entzun nituzan
udabañi goizez,
ta biotza alai yatan
bai neban ilunez.
Eguzki'k berpiz nindun
bere musu leunez....
Zozun bila nenbilan
ta aurkitu dot, ustez.

Ames-bide ezaungaitzak
nai ditut ezautu,
ta arantza artetik landa

auzuki egatu,
min-txinta negartiak
zearo akitu,
eder dan gauza oro
leratsu maitatu.

Agur ! egun goibeltsu,
aro ta aldi ilunak,
agur ! neke-sortzale,
arantza ta asunak,
agur ! gogo itunbera
ta biotz arontak :
barnean sartu yataz
udabañi-txintak.

Txori *pio* alaiak
eta atsegin-brintzak
urá dituez arás
itunkerri mintzak ;
amaitu dira, zinez,
gaurdaño-zalantzak :
Argi-maitale egin naz
kutun ditut goi-intzak....

ERKIAGA'TAR EUSEBI

Lekeitio.

UMEZURTZ-BIOTZKADAK

Dar-dar dagit oro gogo miñez
oñi igarák bezela ekaitzez,
bakañik naiz ta mendi malkartsun
zugatz lañu-goñi bezin itun.

Bai mingotza seaskatxo utsik
aingerutxo bat iges ta ilotzik ;
areago ordea aur otzik
amak iges seaskan utzirik.

Maitean ukiturik ez dakit
miñak beti zast-zast egin bai dit,
goibel-goibel zait beti ortzea,
ilunik gaba izañik gabea.

Begi nau oro arkumetxoak,
ama bat bai dauka otska berak,
txori-umeak ere zein pozik
kabitan kutun moko zabalik.

Oiuka naiz alaka alaka
urun basora oro taltalka.
Ama nai det, kolko beroa
an kixkaltzeko nere gogo.

¡ Alpeñik, ene ! Oiareunak otz
anker kuskurtu du nere biotz.
¡ O zein itun ludian lagunge
bidezkarri, maitasunik gabe !

Aren gogoak maitea nai du,
yatorizko egaña bai du
eta zauriturik noa miñez
itur gardenera akeña lez.

Arin yausi det arantz sasia
lore me zuri goñiz yantzia,
belardik gero lorez muxuka,
txorik txioka, mar-mar eñeka.

Lilitan mitxeleta yostañu,
auts-iriñez erlea buñuntsu ;
¿ nun ote aiz bada ituñi otza
nik ere asetzeko biotza ?

Arintsu ekin det areago,
bañan bide txigoñean dago
akeña egañik amilduta
adañak sasitan nas-nastuta

Asperturik, ezin, lo zoñoak
geldi-geldiro amets goxoak
begik ukitu zizkian gero
kuñukaturik oro emaro.

¡ Ene loa ! ¡ O zein eder altzoa
berdin orontzat bero-beroa !,
esan zaidak, amets bat bederik,
ama bat topatu detela nik.

Amon tximel muxuz, egun txintak
idiki dizkit nere begiak,
eguzkiak lez liliburuak
intzetan negaéz makurtuak.

¡ Ene, zeru urdin ! ¡ O zein garbi !
¡ Bai dagola oro bitxigari !
¡ Ene ba izaíaak laí dirdizka
neri ote zerate keñuka ?

Ara, loíatz urdiñezko izaía
dir-dir zabaldurik galpaía
oro arintsu beruntz nigana
¡ O argiaren argitasuna !

Txori auíe ume bezin laí
eskuk bere gain ditut nik yaí,
bañan izaía yoan zait auíera
yauskari txori-ume antzera.

Érege-izar yar zait baselizan,
ezkila, gotzon, otska-otska an ;
Betlem-txabol auíe irudit artzai,
¿ beí on bat ote zait ba alai ?

Ordun eguzkia zeletari
bitxik erantziz intz malkoari,
alai izamena, oro kontari
txori eresiz bere yaunari.

Ez dakit zer dedan biotzean
orok xamur ukituz goizean,
alai nago, abartxo eze lez.
goiztar luzaturik udalenez.

Gert-gert banoa baselizara,
biotza bultzalari det ara,
ezkila ta izaía beíz mugitz
neri keñuka yualtegin dabiltz.

Argi aulak oiu dit arguntzin
ekile ezkil eta izar bezin :
«¿ Ama bila zabiltz ? Or onena,
asetzen ituírik gardenena.»

Sortzen bi eguzki sorkaldetik
Ama txit Neskutzaren bi begik,
bere ezpañak párez emaro,
oro luíndun, udalen oro.

¡ Bai udabeíi Ama Neskutza !
Lili lez zabaldu dit biotza
ta pozkiro arguntzi zalantzan
oiuka asi naiz baselizan.

¡ Ama ta Ama ! dagit nik ero
¡ Ama, Ama ! negáez emaro
itur idurila nere auak
noizbait buñun ausirik sostoñak.

Amildurik dan añi legun lez,
ur geziaren laistertasunez
aldapa bera arin trinkaka
pozkiro ekin det nik oiuka :

« Orain ba det nik ere amatxo.
¿ Ikusten eleiza urun uxu ?
Antxen ba ama kurukalari.
¿ O zein eder eta maitagañi !

« Etzait iñartzi ez arkumerik
ezta ere ez txori-umerik
bai emeki ama aur oiuka
baselizatik muxu-muxuka.

Yostakin nabil ituñi otsez,
ero naiz lekaron maitasunez
antxen ba amildurik, leialtsu
ama zerutañak nau upatu.

Lekaron alai zugatz igañak
zabaldtu ditu oro oñiak
basatxaunoan itur sorturik
zain legoñak oparo bustirik.

Baselizako ituñi gardena,
ituñirik oro edeñena,
Ama Neskutza argi ta yarduki
ez dezadan atzendu itur ori.

PAGADIZABAL'DAR PANTZESKA

« ONINTZA »

Irura.

AMAREN SEMEAK

1

Mendia gure «aita» ta itxasoa gure «ama»
Olatu ta arkaitz gogoñen seme indartsuak gara,
Kantauri itxas-oñua eusko-irintzien gaña!
Gogo-Yaun Goiko Yauna ta bizia anaitasuna
Azpi-oial azkatasuna
Euzkia burestuna
Añemendi eraldoiaren bulaña gure indaña!

2

¿ Nun dira «abenda» ori margozteko margoak?
¿ Nun «Andera» orñen edeña yasotzeko besoak?...
....Izañen kolko-bañuko «eder-brintza» sugañak?
Itxaso-eraietako lora gelgañitsuak....
Guztiok baiño edeñago «lora» egin Goikoak....
¡ Itxartu ta abestu, seme, zeure Amaren edeñak!

3

Yainkoak «baso-seaskan» lo dagitso Amari
Azkatasun-egoetan lotan dauko ameslari ...

¿ Ta ańano ego-luzeak itxar-erain berari ?
Belafira ta bańura be zoliago dińoste besteok :
Goikoak baso seaskan lotan aukan Euzkadi
Askatasun-egoetan lo zetzan ameslari...
¿ Ta ańano gosakil ońeik loa kendu Amari ?...
¡ Irĩntzi dagi basoak, itxasoak irĩntzi :
« Birĩndu eńomatańok, lotsa-zulora yaurti.
Egoak zeatz ebagi
Estuntza-barik bizi !

4

Ta alantxe yazo egin zan : ¡ yopu-ezin euzkoak,
Alpeńik etozen ona zabal-zabal egoak....
Ludia katigu zala azke-yai basotańak !
Ta ańotasun-suteietan gorituriko estuntzak
Birĩn egin euzkotańak
Euzkotańen aizkorak :
¡ Anibal.... baińo lenago Europa'ko aiton zańak !

5

Sińismen-izańen argiz.... lauburuko bidean
Goi-gorantz yoiazan gero Urtzi-maitasunean
Zińoparik etzan izan euzkoen legońean
Bońerurik be etzalako zortu Aman sabelean
Goikoak ixur zituzan amaren magalean
Lauburu ta Askatasuna laztan gozo betean !

6

Godoak.... lizunkeriz ta maurotañak indañez
 Oñeik be gure Aman eder yori argi giriñez
 Iraduz ibili ziran guda goñi sugañez !...
 Ta areio biurñi oñeik diauñezan bakoñez
 Kantauri ta Auñemendi 'k bulañetako bañez
 Txaloka yardun oi eben azke-egañi ta gosez.

7

Lauburu-kerizpearen azkatasun-esiñ
 Zoruntsu ziran euzkoak siñismen-goñ-argian
 Euron buru, euron yaube, itxaso ta mendian....
 Olatuen txaloakaz.... tantaien iñintzian
 Goikoak ezañiriko maite-lorategian....
 ¡ Abenda oro-zelaiian
 Obarik ez ludian !

8

Itxaso-eñai-semeak.... bulartsu ta ausarti
 Gaurko itxas-antzañen buru sañi egon ziran sañi
 Esige itxas-zelaiian itxas-lapuñen esi
 Ekatxen iñintzi-bide Kantauriko nagusi !...
 Ta añaintzan Ludi-burura yoiazan ameslari....
 Baita uñezko seaskan be ...¡ mun-eitera euzkiari !

Itxasoz itxas-antzañak
 Legoñez.... menditañak :
 Ta Oñeaga'ko añoan euzkotañen indañak
 Betiko ebai zituezan ereñotza-adañak
 ¡ Frankuen arotasunak.... moñoztu basotañak
 Mendi-zear, mendi-zear.... Karloman'en negañak
 Bustirik busti eutzuzan euzko-ortzez izañak !
 ¡ Oñeaga.... Oñeaga.... Itxartu euskotañak.

Lotan da bañiro Ama, lo naroz ameslari :
 « Urtziren biotz-ontzitik yainkokiro dixuri
 » Azirik guren-gurena Gernika alabatxori
 » Erneaz yoian azia, goraka yori-yori....
 » Aundirik lora-mendi da.... ¡ semeok eder-mendi !
 » ¡ Ta Amaren euzko-semeak.... laztanka Aretxari !

« Geñian.... Lauburu-soiña, enda eñaiñ sustañak
 » Goi-maitasun euri-bide ortzeraño adañak
 » Sendi bat oñi bakotxa, euzko-sendi kistañak....
 » ¡ Amaren zoragañia !... entzun Aman didañak :
 » ¡ Zabaldu adañok, zabal-zabaldu zeure indañak
 » Lauburuzko anaitasunez anaitu zeuk bazteñak
 » Ludi-zear, ludi-zear zabaldu euskotañak !...

Ta an doiaz aman semeak askatasun-burdian
 Abenda guztion lagun Aretxaren euzkian
 Siñismen-brintzak begian
 Gañak biotz-ontzian
 Or doiaz aman semeak ameseta bizian
 Bizia anei zatika emon-nai-egañian....

Napaña an doia ereiñe Euzki-Eñi-aldetik
 Zingeak laztan bategaz anaiak eiteatik...
 Bitori eguzki argi.... yakituri menditik
 Or dozu yopu azketzen eguzki ilobitik....
 Ta Izañaitz-seme zintzoak abenda-tontoñetik
 Urtziren Azi Gurena darei biotz-ontzitik.

.....

 Ta eñirik asko be asko ankeñen ingudian
 Yopuen burdin-estuntzak landutzen ziranian
 Euskoak or dira ereiñe ludi zabal guztian
 Endaen biotzian
 Aritz-azia erein da erein askatasun-mendian
 ¡ Yopurik ikusi ezin Aretzaren azpian !

.....
.....

Ludi Zafean eztozu legor-txataltxu bat be
Aritzaren azi ona euskoak erein-bage
Ta urduri Aman semeok Ludi Beñian gose
; Antxe be aman esana bete egin nai dabe !
 Aferon dagitsee
; Ludi-zear, ludi-zear, beti oréik garaile
Amaren agindu onez erion askatzale
 ; Zugortzañen eraile !

.....
.....

; Euzkia be ikarean !
Ludia euzki-semea biraka doianean
Urtero gelditu oi da Auñemendi-auñean :
; Ara Elkano'n eria-diñotso bere aitari
Ortze dira euskotarak, ortxe, aita, Getari !
Ta ara or Urtzin semeak, euskoak ortxe bizi !
....Urtero dabil Ielo ori.... ta agur dagitsonean :
« Prior circumdedisti me » ; Aintza zure Amari !

.....
.....

Ereile dira euskotarak, ereile lur onean....
 Ereile Ama bera be umezurtz-biotzean
 Ta Amerika-Neskatila.... amonan magalean
 Azkatasun-gona goriz ber-berak yantzi eban
 Aritzan itzalpean....
Umea eder be eder.... eskar-on azi egin zan
 Ta or doia gaur Anderea : ¡ Gora amona-aintzean.

Amerika Eme Bikaiñak besoak zabaldua
 Oiu diaur zoli-zoli Aritzari begira :
 « ¡ Gora Amona Amonatxoa, ara or Eusko-Ama !
 Ta Andera lirain yoriak Andes-ganera igonda
 Maitasun uiustui-otsez endaz-enda didarka
 Entzun au guztiok entzun belauniko yosita :

Entzun, yaso gogotik :
 « Europa'ko abenda zarak gordin-gordin zalarik
 Ez eban iñoiz eroan yopuen estuntzarik,
 Azke zan bere itxasoan legoñez be izanik
 Garaitza-yauregietan ezta orein aizkorarik !
 Ta Abendaren Neskatilek eztau yasan iraiñik
 Eusko-Andera garbiak.... Amonatxuk egiñik.

Euskoen biotz-arizko « gitaíatxo zar batek »
 Dardaraz euki zituzan Andes-mendi onetxek !
 Geure Pampa'n erein eban euskotaíen Moises'ek
 Gari-arto-itxasoan bideak ein oíexek
 Azia yaurti ta yaurti.... Aritz-aingeru oíek
 Euron Ipaíagiíe'k !

Ludiko abenda oro, yosi ortxe belaunak
 Ta Amona-zaían auíean yaurti or burestunak
 Olerki-yaia dau Amak
 Ta olerkien indaíak
 Legortu beioz betiko biotzeko negaíak....
 ¡ Erne bediz, erne bediz Lauburuko izaíak
 Artu, Ama, artu, Ama, olerkari-didaíak !

URKIDI'TAR ALBONTSÁ

Oñate.

OTOIA

Irazan egizu enegan biotz garbia...

L Eresia.

¿ Noiz arte, ene Yauna, Zure eskuaren
Eskar deuna ditxaro ?
Nire biotz au pipiak yandako
Zura bezela dago.

Sasiz yosita bidea dakusat,
Ez dakit nondik yoan.
Zuganatu gura dot, gora-min naz
Eta ; ezin dot gora !

—

Argia urátzean, Zure etxearen
Edeía dot begitzen.
Yoaleak eiten daust dei eztia
Gogoa yat goi-mintzen :

¿ Zein yoriak diran Zure baratzak !
An betiko loreak,
Zure eskaía yake euri ugalkoía,
Zure arnasa, aizea.

Landak yoritzen dabezan ibaiak,
Esne ta eztizkoak.
Mastietan, leraz nire biotzak
Nai daun mama gozoa.

Ango zidořetan ez dau aurkitzen
Sugerik bidaztiak.
Ez munetan otsorik artaldeak !
Bazka, bai, ugaria.

¡ Zure yauregiaren gelgařia !
Ařoiņak, uřezkoak.
Bolia goian ta zidařa bean ;
Nongura, ikustekoak.

Bertan osasun ta egizko poza,
Bertan Zuzentasuna.
Bertan Egia, Zure biotzaren
Adizkide kutuna.

Ontasun, Yakintza, ta Edertasun
Zure mailetan dira.
Eta Gentza, gogoen osakaia,
Daukazu bakaulkian.

Miņa moteltzen yat Zure auřean
Maitasun eta ikaraz.
¡ Izkor nagizu, ařen, beti, beti
Goretsi zagidazan !

—

Oíenbesteraíño Zu maitatu ta
Nardaturik obena,
¿ Zegaitik bidetik aldenduten nau
Gorputz-dei motelenak ?

Egizko bizitza Zugan bakaírik
Dagona dakidala,
Guzur-atsegin bíla, abere-antzo,
¿ Zer dala ta noa, ba ?

Goizean Zure edeíari antzika
Ta loi-zale gabean.
Beti buíukan ta uzkalduta beti
¿ Noiz arte, ene Yaubea ?

¡ Oi !, asko da, Yauna, gaurdaiñokoaz
¡ Nik ez nai geiago olan !
Árenez daskatzut, ¡ ez zaiataz, ez,
Izango entzungoía!

Emango daustazu biotz baía
Garbi eta igokoía.
Ta Zure bidetik yungo naz beti
Zu'ri aintzaz ta goraz.

AMETZAGA'TAR BINGEN

Algorta.

BIOTZ-IZKETA

Gau ixil baten
Sabin abotsa
nabaitu neban
biotzan.
Maite dardaraz
urduri neukan
biotz-txoria
kolkoan.

Zugatz ostoak
aize zakañak
astindu ditun
bezela;
Sabin abotsak
astindu eustan
ene bañunbe
epela.

Abots leunari
erantzun naiez
« nun ete zagoz »
niñotsan

SABIN. « Otzez geixorik
zure begira
egon nago ibai-
ertzean.»

Lanbroe bide
legaiaz zear
ibai-ertzera
ninoian.
Ta ibai alderantz
ninoialarik
itz onek txir-txir
gogoan.

s. « Ibai ertzean
otzez geixorik
zure begira
natzazu.»

GOGOA. « Baña ilun ontan
biotz begiak
ikus zaikie
t'ezautu ?»

s. « Auñera gogo
ire begira
maitale antzo
natzaik ni.

Eztok ikusten
ibai leiafak
argi printzaok
edaki ?

Neure gorputzak
gau ilun ontan
sortu dau izpi
zuria
eusko biotzen
su aberkoia
izpitu onen
semia. »

.....

Auzpez-gurturik
Sabin itzala
isla be islatu
yatasan
iru margozko
izpi gartsuak
ene begien
leiafan.

ARIZUBIETA'TAR MARTIN MIRENA

MUNDAKA

ZU ILTZEN BA'ZERA

Nere Amatxo, Ama edeía,
Pizkaka amaitzen ari zerana...
Biotz baíuan badet belduía,
Ilko zerala, nere zoruna...
¡Zuregatik det iluntasuna!

Etsai gaiztoak, atzapaíakin,
Zatitu dute zure gorputza...
Eta orain zuk artzen dezu min,
Eta naigabez dezu biotza...
¡Zure gaiñera yatxi da izotza!

Zure ondoan, egun oetan,
Ez det ikusten eusko semerik...
Odol otz-otza dezu zaiñetan,
Eta ez dezu berogaíirik...
¡Euskal-Erían ez da gizonik!

Ikusirik Zu oíen gaixorik,
Nere begiak bustitzen dira.

¿Zer egin bear dezu bakañik
Beñiz etsaia jaikitzen ba'da?...
¡Laguntzik gabe, Ama, ilko zera!...

Ez det nai Ama, iñoiz ikusi
Zure eriotza ta azken ordua...
Zugandik ez naiz yoango igesi...
Zaitu nai zaitut, Ama gaxua...
¡Naiz ta gelditu ni odoldua!...

Zu iltzen ba'zera... agur, betiko,
Euskal-Eñi'ko egun-sentia...
Zu bai-zera Ama, Udabeñi'ko
Eguzki samur, zoragañia...
¡Argi txit eder, maitagaría!

Zu iltzen ba'zera... agur, betiko,
Txorien abes alaigañia...
Zure izkera nik ez det entzungo,
Euskera maite txit pozgañia...
¡Loirik gabeko ur txit garbia!

Nere Amatxo, Ama edeña,
Pizkaka amaitzen ari zerana...
Biotz bañuan badet belduña...
Ilko zerala, nere zoruna...
¡Zuregatik det iluntasuna!

Zu iltzen ba'zera... agur, betiko,
Biotz ba'ruko lore kutuna...
Ez det geiago nik usaituko
Zure loreen usai gozo ona...
¡Zuaitz maitea, lore ederduna!

Zu iltzen ba'zera... agur, betiko,
Ortze edereko izar-argiak...
Bein-ere ez ditut nik ikusiko
Berdin-gabeko zure begiak...
¡Begi politak, dizditzaliak!

Zu iltzen ba'zera... agur, betiko,
Seaska abesti polit, ariña...
Aurtxo maiteak ez du entzungo:
«Tunkuñunkuntun. seme biguña...
!Lo egin zazu, txori liraiña!»

Zu iltzen ba'zera... agur, betiko,
Eusko neskatxen samurtasuna...
Biotza dute anitz galduko...
Eta baztertu apaltasuna...
¡Agur, egizko maitetasuna!..

Zu iltzen ba'zera... agur, betiko,
Gure dantz-eder eta yolasak...
Arotzak dira nagusituko...
Galduko dira euskoen gauzak...
¡Gero guretzat egun garatzak!

Ez det nai Ama, iñoiz ikusi
Zure eriotza ta azken ordua...
Zugandik ez naiz yoango igesi...
Zaitu nai zaitut. Ama gaxua.,
¡Naiz ta gelditu ni odoldua!

Nere Amatxo, Ama edeña...
Pizkaka amaitzen ari zerana...
Biotz bañuan badet belduña...
Ilko zerala, nere zoruna...
¡Zuregatik det iluntasuna!

SAGARTZAZU'TAR KAULDI

« SATARKA »

Ondañabi.

ARNO'KO KURUTZA

Goian oztiñari mendi-leñoak mun.
Laiñoak igeska eguzkiari.
Argi dizdiratan kurutze bat ilun
tontor goienez Arno'n ageri.

Leiotik neretzat aúez-aúe beti
gaiñeuzan zutik dagon kurutza...
Maitasun Legeak ludian geznari
Euzkadi'ko mendi tontor bakoitza.

Bera, asabengandik gogoan damagun
Yaun-sinispénaren ikur maitea,
aberi nerezan elburutzat degun
Goi-aberirako zuzen bidea.

¡ O Arno mendian zeru-lúen mugan
ikusten zaitudan kurutz lerdena !
¡ gogora mintzatzan begietan dedan
ikusgarí eder eta onena !

Asabak bezela or goian zaitugu
eríen gaiñetik guru yabetzat ;
asabak bezela gaur bean nai degu
zure irudi deuna geinkean ainbat.

Sendiaren euskal etxeetako ormetan,
gure Udaletxeetan uri-nagusi,
bide-kurutzetan, eta nun-nai geran,
gure ildegietan gogoen argi.

Gazteak dezala zure antza egin
bere yolasetan ekin baño len ;
gizonak, ludiko gauza guzien gain
aitor ba-zaituzte, dira sendoen.

Neskatxak zaitzala maitasun garbitan
bere biotzean kutuntzat yañi ;
oñela, neskutzak aberi-luñean
donoki usaindun ainbat zitori.

Amaren altzoan ikasiak gera
zure antz deun ori geugan egiten ;
Erosle gurea, Yosu Biotz-bera
zugan maite, gurtu, ta baita aintzaltzen.

Yaungoiko Semeak gizadi-oiñazak
beregandu zitun neke-Zuaitza,
ain odol Deun-deunez bere maitasunak
ikuñaztu zindun pake-ikuñitza.

Zugan bizi gera Goiko itxadopenez,
samin orok zugan osagaña,
gaur nere abendak bere antz edeñez
ludia gel-daukan Tabor-mendia.

Gogoa doakit sinispen egatan
beso zabal zauden gailuñeraño ;
; ai ! ludi osoa nere besoetan
eraman al ba'neu, ainbat naiago ;

baña ; etsaiak gaur, yaurti nai zaituzte
arki nai zaitugun toki guztitik !
zoritxardun gera, ba lotuak gaude..
; Azkatu Euzkodi oien menpetik !

MUXIKATAR EROBUSTENE

Deba.

« TENE »

1. The first part of the paper discusses the importance of the study and the objectives of the research.

2. The second part of the paper describes the methodology used in the study, including the data collection and analysis techniques.

3. The third part of the paper presents the results of the study, which show a significant positive correlation between the variables.

4. The fourth part of the paper discusses the implications of the findings and provides recommendations for future research.

5. The fifth part of the paper concludes the study and summarizes the main findings and contributions.

6. The sixth part of the paper provides a detailed discussion of the limitations of the study and the potential for further research.

Date: _____

EUSKO-POEMATXOAK

II' garfen

ZATIA

O R E A G A

Indárez arturik lateñi euskalduna
Karlomagno, prantzetañen bakalduna,
arokeriz beteta Aragoi aldera
dioa Zaragozako uria artzera.
Bakalduna bera
gudari tartean dioa zalduna,
egaki beltzak eta yantzi goñia,
izkiñu bikaiñak ta zaldi bizia.

Badator Zaragozatican atzera
ikusten zuelako bere galera.
Iruñatik ziar gudoste guztiak
igarotzen dira, ta bere aresiak
eta zaindokiak
yaurtikitzen dituzte aras luñera,
bere ustez menpetzeko Euskal-eriko
biztanle ta uri guztiak betiko.

Iraindurik euskaldunak bañenean
aresiak luñeratuta ikustean,
opendu nai dute sumin suminduta
egindako loidoa ezpatak artuta.

Astiro oldoztuta
aúez aúe an gudatu beáean,
lekora yoaten dira yazartu gabe
utzirik Karlomagno Iruñaren yabe.

Iruñako aúesiak bota ta gero
Ofeaga aldera dator paaskiro
Karlomagno, bere prantzetaáarekin,
yantzi goía ta egaki beltzakin,
zaldi pizkoáakin,
gudoste bikaiñez moltzatuta osoro,
oiñezkoak asko, zaldunak ugari,
badatoz aóoki aneika gudari.

Odoi beltzakin eguzkia da estaltzen,
pixkaka, pixkaka eguna da itzaltzen,
aize bolada batzuek asten dira,
txoritxoak babesten dira kabira
amari begira ;
lenengo tximistak asi dira azaltzen,
ur tanto lodiak asten dira astiro
ta geiagotzen diyoazte diziro.

Ibaiñeta gaiñean eskutatuta
euskaldun yatoáak ixilik bilduta,
gogo bikaiñezko biotz kementsuak,
asmo auskaitzeko beso indartsuak,

gudari altsuak,
abeñien alde bizitza opalduta,
ez dira bildurtzen, naiz izan bakanak,
Yaungoikoagan ustea daukate danak.

Tximist biziakin zerua argitzen da,
trumoien buñunba nun nai entzuten da,
odoi beltzetatik erortzen da euria,
eñekaz ta uroldez bete da mendia;
oiñazkar argia
iluntasunean biziro ikusten da,
oñoka aizeak batetik bestera
astintzen du dana urakin batera.

Uñeratzen dira Oñeagaraiño
urez bustita nañu bañeneraiño
prantzetañak, gau ilunean sartuta,
ia pot eginda, bidea galduta,
oiñak gogortuta,
uretan sarturik belaunetaraiño,
oso naigabetuta, otzak dardarka
ta Karlomagnotikan danak marmarka.

Oiuka asten dira danak bat batean
Ibaineta aldeko mendien gainean,
buñunban egotzen dituzte geziak,
yaurtikitzen dituzte mendiko añiak,

eta arkaitz aundiak
menditik bera dioaz oldaíean
prantzetar danak zatitu ta zapaltzen
eta bere adore guztia galtzen.

Ibaika dioa prantzetar odola,
nai dute itzul egin, baiña ezin iñola,
mendi gaiñetako alde guztitatik,
baso iluneko zugatz artetatik,
zeru goibeletik,
goitik ta betik elkaitza dariola,
tximistak, trumoiak, suak eta gaíak,
arkaitzak, azkonak ta zugatz adaíak.

Gorputz zatikatuz betetzen da ibaía,
kaíaxia ugari dago ta negaía.
¡ Ai ango aíantzak eta gaizki esanak !
Luíean erorita daude ia danak
ta zutik bakanak ;
ez da ia ikusten zaldun bat bakaía,
baiña erortzen dira banaka, banaka
egiñaz iltzian oíua ta alaka.

Zaldunik gabe dabilta zaldi ariñak
lokatzetan oinpeturik ikufiñak ;
bitartean urak ilak ta biziak
naíatzen ditu bere alde guztiak,

gizon ta zaldiak.

Ta geldi... geldiro... karaxi samiñak
ixiltzen dirade... Gero iluntasuna,
trumoiaren otsa ta bakartasuna.

Oiu garaikara entzuten da danean
Ibaiñeta aldeko mendien gainean,
alde guztititik irintzi alaiak,
turuta yotza ta laztantzea anaiak.

¡ Il ziran etsaiak

Oreagako ibar meargunean !

¡ Gu danok kaltege, aiek danak ilak !

¡ Aupa ba euskaldunak, dantzatu makilak !

Goizaldetik pixkaka goñi goñia
laiñoak aizkatzen dator eguzkia,
mendietatik igotzen da lurátza,
ur txortakin dizdiraz dago zugatza.

Prantzetañen atza

añas kendu degu, ta Euskal-erria
osoro askatuta, arantzikan gabe
beriro da bere buruaren yabe.

Alaitu zar, gazte, neska ta mutilak,
dantzarako bildu ezpata ta makilak,
txistuak ta arantzak yo txistulariak,
zaragi dantzako ekañi zaragiak ;

auřeskulariak
aukeratu zuentzako neskatilak ;
ospatu garaipen au pozez beterik,
ez degu orain bear iñor alegerik.

Gaizkatu da oraingoz gure Euskal-erria,
beriz laino gabe daukagu eguzkia ;
baiña ez loak artu, euki ernai begia,
ta maite dezutenak gure aberria
opatu bizia :
gure odola izango da geroko azia ;
ta izan dedila gure bizi guztia
aberiarentzat gogozko eresia.

KEREXETA TAR ERAPEL

MAITE-DAMU

(ERIKOI-IPUIA)

Zenbait urkabe-bertsu
Lanz'go lapu'ena
ta amairu eriotza
ein zitunarena
ta abar kantatu ziran
orien u'ena.
Ikus emen Imoz'ko
apaizgaiarena.

Urka-bear bakoitzak
bere-egin oke'a
berez naiz bestez, ba zun
koplatzeko oitura.
Gure gaiztagin onek
ba zizun eskola,
ta Yainkoak lagunduz
mintzatu zan ola :

MAITE-DAMU

« Egirik ba da, egi da naski
urka-beařaren itza;
aundiena da Yainkoarena
aren uřena apaiz-itza;
bi on tartean ez da gezurti
ni lakoen eriotza.
Entzu itzazute zenbait egi-itz
adieraz al ba nitza.

Yainkoak deitu nindun bidetik
aldegin nuen, damurik !
Arek legea irakasteko
enuen izan azkurik.
Orain ordea emen nagozu
yendei aurpegi emanik
urkamendiko eser-lekua
sermoi-aulki biurturik.

Senar-emaztek bi semerekin
il nituen gau batean;
iñork ikusi ez nindula-ta
geldi naiz erdi-pakean.
Barneko oiua ezin isilduz
nenbilen urtebetean,
gauezko loa egiten nula
pekatu aren gainean.

Elizbatean sartu naiz eta
aditu dut bear ainbat;
oiu sarkorak entzunik ere
biotza zekena daukat.
Apaiza ari zan pekatu egin
ta gorde oi dunarentzat;
neretzat yator itzegin aŕen
nik ez itz aiek neretzat.

Yainkoa (apaiza) «Kain» oiuka
ta Dabid'i igarle Natan,
barnean piztu nai zuen aŕa
neronek itotzen nuan.
Aiek gogor, ni ez biguinago,
aldegin nizun andikan,
piztu nai zuen aŕ arengandik
igeseŕgin ote nezan.

Alako batez, geroenean,
atzitu nau yustiziak;
ezin bigundu zuten biotz au
presondegiko kateak.
Eriotzera galdu ninduten,
orduan ziran nekeak !
Il-bildur oñek mendera ditu
ni lako ezigabeak.

Nere buruaz, noizbail bear ta
lotsatzen nintzan asia;
eriotzaren mugatik ara
ba da leize izugaria.
An erortzea yakina neukan
ez ba nun damu bizia;
apaiza laister eskatu nizun
ta argaz zeruko grazia.

Gizon santu ark astindu nindun
burutikan beatzera,
bañen au lasa-naiez, aipatu
zidan Yaun erukibera.
Bildur-lotsatik eraiki nindun
Yaungoikoa maitatzera,
Yaunak bakañik eskuan daukan
maite-damuan urtzera.

Pekatu ordezkaintzen diot
eskatu ere eriotza;
urkabez baino damuz iltzeko
berri zadala biotza.
Ez dut ez etsai nik, urkabea
altxako didan arotza,
ez, estutuko naun sokaduna,
ez dut ikara lur otza.

Lepa-sokaz bat egiten dula
bioz-damua ler bedi;
gaiztakeri ôk an urtu bitez,
zerura zuzen yun nadi.
Baino ordurako zentzua galduz
ontan iraun ez ba negi,
ordukoz orain damu dut, Yauna,
damu biotz biotzeti.

Zuek, nere eskuz ildako oriek,
barka idazute zerutik,
Yaunaren altzo maitagarían
ez daiteke gorotorik.
Barka idazute, nere etxekoak,
utzi zaituztet bezturik;
damuaz orde nola barkatzen
ikasi Yainkoagandik.

Neri begira zauten guziok
ikasi zer dan gaiztoa;
emen nauzute nere egiteaz
urkabe ontan igoa.
Luzaro bage biuréz estu
didatenean lepoa,
buka zazute neronek ezin
bukatu dutan Credo'a.

Beñiz ta beñiz azkeneraño
barkatu, Yesus aundia !
Idazu gaur-gaur paradisuan
lapur onaren zoria.
Zure laguntza-bidez idazu
damu erdiragaña;
ikusiko dut Yainkoren Yainko
itzaltzen ez dan argia ».

ORMAETXEA ' TAR NIKOLA

« ORIXE »

III^o gáfen

ZATIA

«LORAMENDI»REN

OLERKIAK

Igaz, «Eusko-Olerkiak» en III liburuxoko aurre-itza «Loramendi» ri (g. b.) eskeiñi geniokan. Bidezkoa, ere, ba-zan. Olerki saritua arena izan bai-zan.

Ez genituen, ordea, idaztitxo oretan «Loramendi»ren olerkitxo txukun eta sotiñenak argitaratu. Eta olerki oiek, aizeak daramazkin ostoak bezela, naasi eta erdigalduak aurkitu ez ditezen, orialde oietan egokienak eta yaioenak biltzea bururatu zaigu.

Adizkide min zanaren oroigarri izan bitez euskeltzaleentzat.

I L A R G I T A R A

PULCHRA UT LUNA...

Nolaz diteken, nongo gertari
iges dagio adimenari...

Ta alaz, ta ere,
egirik bada,
eskutu auxe
eraiñukada...

¡Sortzetik, Miren, Erúge zera,
Ama ta Birjin biak batera !

—

Kope-mamia gotargiz afo,
sakona dazaut, naizenez txafio...

Zenbat dagidan
ega gorago,
ainbat, zalantzan,
dakust arago,

¡Ta ala badere, Erúge zera,
Ama ta Birjin biak batera !

—

Arats-zoriak iluna dakar,
esna-eraziz ontz ta xaguxar...

Oro geldi da.
Otsik iñun ez...
Sorgin-egada
guzion gaiñez...
Sorgiñak berak txistua yo du
ta ilargi-izañak izeki ditu...

—

Izañak lagun, ilunak etsai,
itsas-ertzean nago egi zai.
Ilargi bete,
adar urdiña,
luñun-irule,
zilár-yoskiña...
itsas-auspoak darakar zikor...
ta izañ-erdian apurka dator.

—

Ilargitara... oro geldi da,
marmarka-itsaso... neuriz taupada.
Pizti-txiñika
ulu eziñik...
Buru-ausika
gogait egiñik,
bañen-odeiak noiz ta beltzago,
itsas-orpoan nasturik nago.

—

Ilargi mea dagit musuka,
ugin-gezalak aitz-atzimurka...

¡Ta itsas-altzoan

musu borobil..!

¡Noruntz digoan

aruntz darabil..!

Nondik dan ori... asege nago...

¡Uretan izan geroz geiago!

—

Ugin-baírenak argiz-yosiak,
itsas-osiñan par ilargiak.

¡Itsas-éaian

par ilargiak,

gira nasian

kiñu pitxiak..!

¡Garden azala, ditziz ondaía,

garbi azpia, gaiña leiaía..!

—

Ilargiaren biko bizia,

izar txurien kiñu beía..!

Ugin-azala

uratu barik,

baíren-itzala

uréz-yantzirik...

be-bean dabiltz paíe ta mugiz,

legor-bustian batera biziz...

—

O Miren eder ! Erüge zera,
Ama ta Birjin izar antzera!

Irudi dezu
itsas-kolkoa...

¡Ta askatu degu
korapiġoa..!

¡Nondik ta nolan, argitara da,
ezkutua gaur eraiñukada...

—

Itsas-erota kanat-kantari.
ta izar-ugiñak elkar-dantzari...

L O R A M E N D I

(O. M. C.)

ONATX, ERLETXOAK

Muiñorantza doa Yosutxo, kantari,
belañitan zintzil bi-iruna gerezi.
Mutil xalogorik!.... Zeren bila ote?
Kilkeñak, marmari, agur dagiote.

Baiño... oar!: bêko eultzaren buñunba!
Erle danak, leitsu, ager-ixkutuka...
Zer gerta zaie, ba, Yoseph-en erleai?
Lore bat ikusi muiñora, poz-dirdai...

Egalda zaio bat: ezañi da tēnte
ezpain-mañubian,-añosa arek uste.—
Zizta du ta, ene! odol-tañña atera
kutuan, miztuta, beñiz egatu da.

Egun gutxi buru, Yoseph ezti bila...
Baiño... zer da an? Yesus! Eultzeko iskanbilla!
Erle danak itsu, zoro, norabage
ninitik zerbaitek eutsiko bailie.

Ta abaraska-uřean, izarño bezala,
uřin-yarioka, ñir-ñir, odol-tanta!
—Ařigaři bai au!...-ta artuz abaraska
poz-tuřuli yo du Andra Mirengana.

Baiņa Andra Miren-en sen zořotz-argia!
Ikusi orduko bařendu guzia...
Yosutxo deitu du; laztan dio gero
ta aberaska bera yaten eman dio...

—

Sagara-muiņoan Yosu gorde zaigu;
Onatx, Erletxoak, *Lore* ori miztu!

L O R A M E N D I

(O. M. C.)

¡ENADA BELTZA!

I

¡ Ura, bai, zala lagun zintzoa
leio ertzeko enadatxoa !...

—

¡ Udabeñero bazetorkidan !
mingain yatoñaz abesten zidan
eresi xamur polita
¡ Txo-ño-txotxio!... egun osoan
egoten oi zan nere leioan
leioan tente yañita.

—

Goiztaña izanik esnatzen niñun
pipir alaiez ¡ oraindik ilun !...
Ta irabioka
yolas-txioka
nere gain beti egunik-egun.

—

Arazo garaiz aldiz zetoñen...
txio zoñotz bat eman ondoren,

nigan xabalik

begik yañirik

kiñu politak zizkan egiten

mingain bikoitza erakutsirik.

—

Arto bizar ta lokatz biguna
elkar yosiaz, kabi txukuna

ipiñi zidan zintzilik...

Yolas-alditan gordetzen oi zan

añet aundiaz kabi-ondañan

ni zaintzeañen bañendik.

—

¡ Ikusten niñun bila ezinik !...

Buru koxkoña erdi-yasorik

¡ kiñu naikoa !...

¡ Txio gaiztoa !...

¡ Ta ixilik beñiz sartzen zan geldi

nere zai beti... beti lapurki !

.....

...Elkañen leian ezin obeto

biok emen bizi giñan.

Lagun oberik arkitu ezin ;

¡ oñen maitagañi baintzan !...

Leio-ertzean tente yañita

¡ zenbat atsegin zemaigan !...

¡ Ura, bai, zala lagun zintzoa

leio-ertzeko enadatxoa !

Eldu zitzaigun negute otza
 zorigaitzaren odei mingotza...
 Ezur damate zugaitzak...
 Urez gaiñezka datoz ibaiak,
 ta apaindu ditu eusko-mendiak
 elur txurien oíatzak.

—

Or daramatzi aize zakańak
 zugaitz-adańen osto bakańak.
 Ekaitzen mende
 noralde gabe
 nekez gaindurik mendi-lepoak
 igeska doaz pagousoak.

—

Aldatu ziran beste txoriak
 aldatu ziran urun guziak ;
 ez da bat ere gelditu....
 ¡ Bakar-bakańik bart ańatsean
 enada beltza leio-ertzean !
 ¿Nolaz nigandik urundu?...

Txio ta txio ega motxean
 enada beltzak leio-ertzean
 itunki negar dario...
 ¿ Nolz ixildu ene txoria
 zintzilik zeukan kabi guria
 gabaz izoztu bazaio ?...

—

lñolaz ezin... ezin eramán
 geldi-geldiro yeixten ari dan
 eluía batez izotza.
 ¡ Txori gaixoa !... egati aro
 abegi eske asekai dago ;
 ¡ noizbeinka txio zoíotza!..

—

¡ Ideki nion leiatil xaía !...
 ¡ ta ideki zidan bere papaía !
 ¡ Txio ta txio
 negar dario !
 ¿ Nolz ixildu ene txoria
 zintzilik zeukan kabi guria
 elur ixilez bete bazaio ?...

.....

IV

¡Ezin sinistu!... ¿Ametsa ote?...
Ilotz.... ilotzik dakust, ai ! ortxe
elur-lorez estalia !...
¡ Zeru berberak ondaindu zion
lagun on batek ziñez zor dion
atsegiñezko ilobia !...

.....

¡ Atsedan adi, enada beltza
egin zak, bai, lo gozoa !
¡ Ire yolasen ordaingaritzat
artu zak nere txaloa !
¡ Atsedan adi leio-ertzean,
atseden, lagun zintzoa !...

L O R A M E N D I

(O. M. C.)

USOEKIN GORA

Eleiz-buruan dabiltz goizetik gabera
usotxoak egaka gurutzez goi bera.
Eguzkira zilaía dixurite egoak
ta aizeaz yolastean esne-pipiltxoak.

¡ Nork al lezazken,

elur-usoen

antzera, goiak garaitu !

¡ Nork, an.... luíean

loia uztean

gurutz saindua laztandu !...

Erakus zaidazute, zuek usotxoak
erakus zaidazute zabaltzen egoak:
Ta alkaíekin udaran yoaz gurutzera
negutean zerurontz aldatuko gera.

L O R A M E N D I

(O . M . C .)

ANTZEKIA

Lore begian kunkurunkun
erle goñiztak buñun-buñun :
zer ote dio, zer lioke,
lore-beraren nini-lore ;
dantzatu ala bañuratu,
egoak yo-ta miazkatu...,
zer ote dio, zer esango
loretxoari kukuriko ?

Erle goñizta : zer diozu
lore begian marmaritsu ?

Ilargiaren kukupean
urtxindoñak udastean :
zer ote dio, zer lioke,
txiruliruka gaua beste ;
sarats itzalen kulunera
ta ibai-eroten dunbotsera...,
zer ote dio, zer esango
ilargiari, aopeko ?

Urtxindoña : zer diozu
ilargipean txiruliru ?

Zer diotsudan, Ama, Zuri,
lore ta ilargi zeran oñi ?...

—

Erletxo naiz, lorea zu :
zer diotsudan badakizu !
Ta ilargitara karnaba lez,
zugana nago maite miñez....

—

Ilargia zu, ni karnaba...
bikote edeñá... yakiña, ba !...

L O R A M E N D I

(O. M. C.)

OTOI, A DISKIDE...!

Il̄ intzan il̄ i ere...! Eraman induten....
Ire itzilak ordea ni baitan dik lurmen...

Eta abaia bai intzan
laiño ta eurite...
beste alde ortan
bai al duk eterpe...?

—

Sukařetan aitu zan Uda, yaun gořia
otzikaran utzirik seme negartia...
Aurari « pa » eta « pa »!.. sukaldean ama
min-ariaz ari da yosten min-oiala...

—Esan, ama, esan :
non degu aitatxo...?
Aspaldi yun baitzan,
laister da itzuliko...?—

Sutu zaio amari malkoz aurpegia
ta alderaka ustutzen du biotz-intziri...
Lotzen du besoetan laztanka umetxoa
ta ixilean txukatuz begi-yarioa,

—Zer diozu, seme :
non degun aitatxo...?
Aitatxo, bai...! zure
Aberían dago...!—

Ta artean txikiari eskua altxaturik
—antxe goian—diotsa—bitxiz buresturik...
Geroztik iñork aitaz galdetzen badio,
belaxen eskutxoaz aurak darantzuo.

—

Ta aingeru batek itaz bai zidak gaur esan
ningandik aldatzean noruntza yo uan...

Otoi, adixkide,
otoi, nere alde...!

L O R A M E N D I

(O. M. C.)

TAPIA-PERURENA'TAR ALEXANDER'EN

OLERKIAK

*Tapia-Perurena'tar Alexander goren-
goenetako olerkaria zaigu. Ain da or-
dea gizon apal eta otzana gure olerkari
au!*

*Gaurko olerkari ospetsuenetakoak
beren olermen biziz sortutako emaitzak,
nola ala bilduta, sorta antzean argi-
taratzen dituzte.*

*Ez ordea, gaurdaiño beintzat, Alexan-
der olerkari yaioak. Onen aratz eta
irudipenez aberats diran bertsoak an
eta emen sakabanatuak agertzen dira.*

*« Yakintza » gurean, pozkiro oso Ta-
pia-Perurena'renak ezagun arazi ditu-
gu. Adizkide onexeri Euskaltzaleak
dion maitetasun ezaugaritzagatik, ona
emen igazko olerki bikaiñenak...*

TAFEL-VERZEICHNIS

Die Tafeln sind in zwei Abteilungen eingeteilt, nämlich in Tafeln I bis VIII, die die allgemeine Anatomie des Menschen betreffen, und in Tafeln IX bis XX, die die Anatomie des Tieres betreffen.

Tafel I zeigt die allgemeine Anatomie des Menschen, Tafel II bis VIII zeigen die Anatomie des Tieres. Die Tafeln IX bis XX zeigen die Anatomie des Menschen, die Tafeln XXI bis XXII zeigen die Anatomie des Tieres.

Tafel XXI zeigt die Anatomie des Menschen, Tafel XXII zeigt die Anatomie des Tieres. Die Tafeln XXIII bis XXIV zeigen die Anatomie des Menschen, die Tafeln XXV bis XXVI zeigen die Anatomie des Tieres.

Tafel XXVII zeigt die Anatomie des Menschen, Tafel XXVIII zeigt die Anatomie des Tieres. Die Tafeln XXIX bis XXX zeigen die Anatomie des Menschen, die Tafeln XXXI bis XXXII zeigen die Anatomie des Tieres.

Tafel XXXIII zeigt die Anatomie des Menschen, Tafel XXXIV zeigt die Anatomie des Tieres. Die Tafeln XXXV bis XXXVI zeigen die Anatomie des Menschen, die Tafeln XXXVII bis XXXVIII zeigen die Anatomie des Tieres.

Tafel XXXIX zeigt die Anatomie des Menschen, Tafel XL zeigt die Anatomie des Tieres. Die Tafeln XLI bis XLII zeigen die Anatomie des Menschen, die Tafeln XLIII bis XLIV zeigen die Anatomie des Tieres.

OREIN ZURIA

Es giugen drei Jäger Uhland

Iru eizilari bein baten eizera
Yoan ziran orein zuria arpatzera.

Etzanik zeudela zuaitz baten pean,
Amets-egin zuten iruek batean.

Lenengoak

Amets bat egin det. Sasitan makilka
Nenbilela, ploxt, ploxt, oreina yauzika.

Bigarrenak

Zakur sainga artean laisterka badua,
Pin, pan ! nik kiskali ein nion larua.

Irugarrenak

Oreina ikusirik erortzen lurrera,
Pozik eman nion adarari, trara...!

Erausten etzanik ola zeudenean,
Oreina igaro zan eken aitziñean.

Ta eizilariak ongi ikus baiño len,
Sakon-muno zear, aiendua bai zen.

¡ Ploxt, ploxt ; pin, pan ; trara !

TAPIA-PERURENA'TAR ALEXANDER

LORE IGARA

Bein ikusi nuan aráts-apalean,
Gonatxo bildua ta aztalak ageri,
Lotua yoranez iratzeketari,
Ikusi nuan bein mendi-egalean
Aráts-apalean.

Nabari zitzaion gorputz lirain ortan
Biuñikerian artegatasuna ;
Aingerutxo baten erúgetasuna
Zageñen, ordea, begi urdiñetan.

Neskato alaia mardultasunean,
Arátseko aizez zibuka uledia,
Lore bikain bezin atsegingaía,
Ikusi nuan bein, mendiko narean,
Aráts-apalean.

* * *

Ikusi nuan bein txaide eder batean.
Sedazko yantziáz osoz apaindua,
Andiki oker bat alboan lotua,
Bein ikusi nuan, oi ordu txañean !
Txaide eder batean.

Gorputz lerdén ura zan eder-edeía!
Mendiko lorea, pipila edatuz,
Liluraz yoan zan aundituz ta aundituz,
Ta, ikasiz geroz, artu zun bidats okeía.

Bein ikusi nuan Paris'ko txaidean,
Beiratze sukoían dirdira gaiztoa,
Algara lizunez beterik aoa,
Ikusi nuan bein, gau erdi ostean,
Txaide eder batean.

* * *

Ikusi nuan bein aráts apalean-
Mendiko eluía bezin otz-zuria,
Bere begitako dirdira itzalia,
Bein ikusi nuan, zeálido batean,
Aráts-apalean.

Uri aundiaren luín edendunak
Eusko usoantzat ez ziran egiñak.
Maitekeriaren uin lizun-samiñak
Laister xautu zitun bere edertasunak.

Egun batez, gaixo aurkitu zanean,
Maitalerik gabe, lore igar antzera,
Iltzer etoíi zan aman magalera.
Ta ikusi nuan bein, etzana ilkutxean
Aráts-apalean.

TAPIA-PERURENA'TAR ALEXANDER

BIOTZEAN MIN DUT

IĪETA-ERESI

(Gure Lizardi aundiari gogo minduaz)

Biotzean min dut, min gaíatz-aundia
Negaía darie nere begi oki.
Enarak datozen garaiez il zaigu
Ain maite genuan olerkari aundi.

Ezta beíz yoango
sagar loretsura,
neskatx urdin yantzia
maitez agurtzera.
Ezta beíz sartuko
baso itzaltsu artan
andereño beltxeran
Itzal, laztantzera.

Oi,
Oi,
ler adi, biotz !

Uíretxindor gaixoa
betiko ixildu da.
Bere txinta bikaiñak
akitu zaizkigu.
Ene, zein ituna dan

bera bear auxe !
Alako altxor auxe
Alako altxor aundi
óren goizik galdu !

Oi,
Oi,
ler adi, biotz !

Enarak badatozke
—egoak ikara—
adizkide urétxindor,
oi zuten lez, bíla.
Adizkidea, baiña,
il zaiela-ta, aurten
ilobi otz gaiñean
abestuko miñez,

Oi,
Oi,
ler adi, biotz !

Agur—itun diotzut—
olerkari maite !
agur, gure Lizardi
Egun aundira arte !

Biotzean min dur, min garatz-aundia.
Negaía darie nere begi oki.
Ez gaitzakean aztu, Yainko gaiñetara
igoteko utzi gaitukak, Lizardi!

TAPIA-PERURENA'TAR ALEXANDER

U'ÉTXINDO'ÁK

IGESKA

Lizardi ta Bedoña'ren oroiz.

Basoan ibili naiz; oro zan ixilik.
Nere uratsen ots soilki al izan dut entzun;
Noan zainaren gana, galde egingo diot
Ea bazter oketan ekus ote ditun.

—Esan Lorezain o'ek,
baratze ontako
ur'etxindor bikaiñak,
a'ren nontsu dira ?
Emen abaro oketan
len ikusten nitun.
Gaur, ordea, alpe'rikan
nabil o'ron bira.

Oi,
oi,
Yoanak, baitira !

—Biotz mindua dezun
bidazti gaixoa:
Egaka ur'etxindo'ak
emendik itzuri.

—Itzuri ! Ta aien txintak
akitu zaizkigu !
Beñiz ez dantzukegu
aien abots guri !
 Oi,
 oi,
Yoan dira itzuri !

 Belari okendako
Nun ots eztigari ?
Nork alaituko digu .
orain baso ixila ?
Norantz itzuri dira ?
Esadazu, aien,
iradu bereala
noakien bila.
 Oi,
 oi,
Basoren ixila !

 —Beiko lilitegiak
betiko utzirik,
lganak dira «Yainko—
muiño—gaiñetara »
An nai beste dukete,
Goiko « zorun-ardo »

Urtzik sartu baititu
bere mastitara.

Oi,
oi,
Zeruko goitara !

Lorzain Done Orek,
Goiko Yaun zerana,
Zugana badituzu
Abesle bikaiñak,
egorzkiguzu, otoi,
aien ordezkioak
abesteko Aberi—
berpizkunde—miñak.

Oi,
oi,
gure lor samiñak !

Basoan ibili naiz, oro zan ixilik.
Nere uratsen ots soilki al izan dut entzun.
Uretxindoñen kabi epelak uts-utsik
Uretxindoñen kabi epelak uts-utsik.

TAPIA-PERURENA ' TAR ALEXANDER

LORE BIKAIÑA

*Saitzar'tar Maite neskatil
eder-begikoari, biotzez.*

Neguan gaudelarik,
Nere aurean,
Lore bat agertu zait
Sasi batean.

Eguneko arazo
Amaitu ostez,
Xoko ontan ikusten dut
Pozaren-pozez.

Oñiak zuri-goñi,
Mimiko musker,
Bai aratz ene lili!
Bai txukun-eder!

Bekoki legunean,
Islatsu ta argi,
Intzezko tantotxoak.
Goizeko bitxi.

Adartxo biguiñean
Aizek darabil
Eta aren bilaldean
Txoridi dabil.

Oi, lore bikain ori,
Zure urétxindor
Ai nendi abesteko
Gauero pozkor!

Ekaitza datořela,
Gogor-beltzuri,
Eskein al banizazu
Aterpe guri.

Nere ego aróetan
Maitez zaitzeko
Ta erauntsi bizkořaz
Begiratzeko!

Lenago zilatuko
Ene bulartxo
Tximistak, uki baiño
Zure oritxo.

—

Baiñan lorezaiñen bat
Ene, datorke,
Ta egun batez urun
Bazaramake.

Xoko atsegintsura
Ordun natorke
Ta adar bigun gaiñean,
Oi, ez zagozke.

TAPIA-PERURENA'TAR ALEXANDER

BAZTAN'GO MENDIAK

Nik maite zaituztet Baztan'go mendiak
Udalen yorian iratzez yantziak.

Igaro baintun zuen magalean
Urterik onenak gaztetasunean.

Gogora datozkit oroitzak pilaka
Ta ausnartzen ditut maiz, gogoz, aspertzaka.

Nere biotzean orduko su ta gar
Ta aberiarentzat maitetasun azkar !

Ordun loretu zan yeltzaletasuna
Nere baratzean, aratz ta txukuna.

Euskerari lotu nintzaion orduan,
Sakon yosi naiez izate baruan.

.....

Agur, Legate'ko galur donetsia !
Zuk yasotzen duzu Gurutz gurgafia,

Erakutsi naiez ludi osoari
Zein kutuna zaion geren eñiari.

Agur, zu, Baztan'go éraldoi laña (1)
Euskadi-zaina lez zerurontz zutia!

Agur, o Mailantz'ko éreka gardena
Aitzez-aitz abesten arin zoazena.

Oraindik nigan dut zeren irudia;
Oraindikan dakust zure ugaitz bizia.

Ta dirudit, ene! apar urdurian
badagerzkidala, so ezti-eztian,

Aintziñako begi eder ta otzanak,
Neretako, baiñan, izan ez ziranak.

Mailantz'ko éreka zure bazteéan
Azkeneko aldiz, oi, egun batean

Aren abots leunak laztandu ninduen.
Abintza aiek, baiña, eraman zituen

Aizeak. O, alde, alde neregandik
Oldozkun itunok! Ez dago zorunik

Beko ludi ontan. Arantzak zein gogor!
Loreak zein muñi! Nunai min eta lor!

.....

(1) Safoa.

Ene biotz orek, beartu kemena.
Goitik datorkizu sendakai onena.

Norbaitek esan du zerala negarti (1).
Oi, zure bañuan sartu al baledi !

Bañuko mingotsa datorkit aora,
Begiok, ordea, so-dagite gora.

Ez da betikoña nere ituntasuna.
Bizitz onen aruntz badakust zoruna,

Ta miñen artean dagerkit, naroa,
Izar distikoña bezala, itxaroa.

.....

Baztan'go mendiak, nere gaztaroko
Poz eta atsekaben mintzoge-lekuko !

Aintziñako oroitzak dakarzkidazute,
Ta nere gogoa lañi egin dute.

Agur, izki biziz, amesti ta yoran,
Bizitzon zati bat dirakurt zuengan.

TAPIA-PERURENA ' TAR ALEXANDER

(1) «Orixe»-k, «El Día»-n.

JAUREGI'TAR KOLDOBIKA'REN

OLERKIAK

*Ez genduan liburutxo au biribilduko
Yauregi'ren olerki gozoak orialde oie-
tan irar-azi ez ba-genituan.*

*Olerkari leun eta gogo meedun onek
« Yakintza » ri laguntza bikaiña eskeiñi
dio igazko zenbakietan. Eta zora nola-
bait ordaindu naiaz, ona emen gure
eskerona argitara azaldu.*

*Euskeltzaleei beti zaio atsegin, eta
ein atsegin ezik, olerkari onen bertso
garden, aratz eta ederak irakurtzea.
Beste edozeiñenak baiño ariñago eta
bizkoñago ulertzen bai-dituzte...*

*Ara, ba, aizken aldi onetan asmatu
dituan olerki gozo-eztitsuenak...*

ERENDERI'KO MADALEN DEUNAREN ELIZATXOAN

Eliza txiki ta ixila,
oroigai ez tien kutxa,
malko samiñen ontzia,
gure asabak, esku zabalez,
maitasun-pitxiz yosia.

Anai-gudate luzean
gure aitonen babesan,
otoitz-leku paketsua,
maitasun-deiez, eskari gartsuz,
malko beroz gantzutua.

Begi eder-negartsuaz
beti maiteki begira
eskuan dun gurutzari,
aldare-erdian dago Madalen
bide-erakusle, zaindari.

Maite-damu zindoaren
zurezko irudi bizia,
lore il, Euzkiak piztua;
suzko ondartzatik itzal-kabira
yo zun uso zauritua.

Maite-miñez zaurituta
kabirik-kabi zenbiltzan
abestuz txinta eroak...
Yosu-begien maite-txinpartak
ére zizkitzun egoak.

Ére zizkitzun egoak,
erori ziñan luíera,
ustu zenduan negáez
baíengo pozoi ustela eta
bete zindun Zeru-gáez.

Esan, Madalen edeía,
griñen atsegin-ondartzan
eztirik ote dagoan,
t' oñaze-eztenik arki al-leiken
Yosu'ren oiñen ondoan.

Esan, gizarte-algarak
ez al-diran geienetan
naigabearen txantxoak,
t' ez ote diran zorion-ibai,
oben-nekezko malkoak.

Zure biotzaren kaian
sartu oi-ziran ontziak
zekarzkizuten emaitzak,
¿ zorionaren luíña al-ziran,
ala amets-gezur-agintzak ?

Zure ezpañetan lertzen dan
iripar-lore goñiak,
zure bekoki barean
dirdiz-dagiten Zeru-izpi oiek,
diote izketa ixilean.

Zorionekoak, ziñez,
oben-kaiako kateak
apurtuta, zuk bezela,
malko-itxasora yotzen dutenak,
ontzi-zai, Yosú dutela...!

JAUREGI'TAR KOLDOBIKA

BAREN-IZKETA

Ez yun, ene biotza,
baratzera
alako loretxoa
usaitzera :
pozoidun intza dauka,
ta ilko zera.

Mendi-tontor artara
gaur, biotza,
ez igo, an baitago
gaur mirotza :
antxen dezu zure zai
eriotza.

Ez yun usotxoekin
garieta,
eiztaria an baidezu
gaur gordeta,
aspaldian zu il-naiez
dabil-eta.

Ez yun zure egaña
asetzera
ango bide-onkoko
ibaiera :

ur-ertzean egariz
ilko zera.

Zoaz, oster, laister
aldarera,
ezti-tantoz ezpaiñak
bustitzera,
aragi dan ogiaz
indartzera.

Zoaz, an ikusiko
eguzkia
elur-soiñeko biziz
estalia :
antxen babes alaia,
kai ezta.

Uso garbiak aruntz
garieta,
t'eiztaria, ogitan
zai, gordeta :
uso oro pozez, aren
besoeta.

Uso oiekin, biotza,
ega zaite,
yan ta yan gari ori,
ase arte...
Eiztariak ez zaitu
ilko, maite

JAUREGI ' TAR KOLDOBIKA

ZURE OROIZ

*(Lizardi, olerkari ta adiskide
zanari, maitez ta naigabez).*

Irten biotz-kabitik, bertso negartiak,
bertan ito baiño len negar-ituñiak.
Udabeñi-auñeko enara gaixoak,
il-obi-bazteñean negañez yaioak...!

Zure oroiz, Lizaadi, ta zuri begira
sortu zaizkit, ta zutzat bakañikan dira.
Il-obian zurekin bizi nai lukete....
Emaiezu txoko bat, zu esnatu-arte.

Biotz oiuaak dira ta aiskide-otoitza,
olerkari-aguñá eta apaiz-otoitza.
Baña ñleta-eresi miñena, gordeta
daukat barnean, itzez ezin esan-eta.

Ba-dakizu: biotz-min sakonak, bertsoan,
olerkariak ezin abestu askotan.
Oiek ere entzuteko, baiña gaur zera gai
poesi-itxas-erdian baizaitugu alai.

Entzun, ba, nere baitan, min-eresi ituna
biotzak negar-malkoz abesten dizuna.
Au nere biotzaren utsune samiña...!
Au bai naigabearen min etsi-eziña...!

Nere biotzak ainbat zinduala maite,
adiskide, neonek ere ez nuan uste.
Gogo-barnekoa izan gure maitakuntza,
eriotzak askatu ezin du estuntza.

Aldiak itzaliko ez dun maite-sua,
geroak sendotzen dun besarka estua.
Ixil-unetan biok mintzatu gaitean
otoitzaren eztiak alkar poztuz orain.

Gero ortxe nauzu laister zabalik besoak,
olerkariak zartuz ez gera iltzekoak.
Ez egin, bada, negar, ene biotz bera,
siñismenik ez duten gaixoen antzera.

Emazte maitalea, txukatu malkoak :
ez dira negargañi Zeruko gogoak.
Bemetxoak, begira goruntz aítasean....
Antxen dago aitatxo Zeru ederean.

Zarautz eta Tolosa, Euzkadi osoa...
Goruntz yaso biotzak ta alaitu gogoa :
lagun bat geigo gaur guk Yaunaren aúrean
bultzagai bat Euzkadi'k zorion-bidean.

Euskera gaixo o'rek bai, zuk egizu negar :
lu'ean auzpez egon atsekabez dar-dar.
Txindor bikai'ñagorik be'riz gizalditan
Yaunak ez du sortuko zure basoetan.

Bere ereski'ña an dago nega'zez txokoan.
¿ Nork ote du artuko maiteki altzoan
ta kantarazi be'riz abesti sami'ñak,
biotzondo sakonak t'eres atsegi'ñak ?

Ixildu da betiko ereskin bikai'ña,
eusko-mendietako txindor atsegi'ña....
Yaunak eman zigun ta Yaunak kendu digu.
Naigabez Zure naia, Yauna, gurtzen degu.

JAUREGI'TAR KOLDOBIKA

LEGORTEA

Ba-datoz baseñitañak
gizon sendo ta andre zañak
goiz-goizean elizara.
Bete da eliz txikia.
Ezkiñaren ots bizia
zabaldu da emen ta ara.

Aldare nausi-auñean
asi da otoitz luzean
apaiz yauna belauniko.
Eñia otoizka dago :
«Ez gara, Yauna, geiago
Zure kaltez ibiñiko.»

Asi da prozezioa...
Gurutzea auñetik doa
ta San Ixidro ondoretik :
banaka mutil ta aitonak,
erdian eleiz-gizonak,
andre ta neskak atzetik.

Buruak makur gizonak,
erdi negáez amonak,
otoizka apaiza kantari :
« Entzun gaur gure eskaria...
Aren, bear dun euria
bidali Zure eñari... »

Ba-doaz bide zañean...
Sartu ziran ermitean
eta ixilik Meza asi zan...
Beñiz, eskari beroaz
bide zañetik ba-doaz
ta sartu dira eleizan.

Ba-doaz baseñitañak
gizon sendo ta andre zañak
elizatik baseñira :
ijun eta alai diyuaz
itxaropenaren suaz
lur legoñari begira.

Ta utsik ta ixilik eleiza
geldi zanean, apeiza
aldare nausi-añean.
auzpez luñean yañiaz,
maitetasun-gar bizi
gelditu zan otoitzean :

«Yauna urútitik etoíi dira
batean otoitz-eitera,
ta aien otoitza entzute-aíen
erdian Zu egon zera.
Ikusi zaitut emen gurekin
Artzai onaren antzera.
Itxaropena Zugan yaíirik
itzuli dira etxera.
Aldendu, bada, Zure zigoía,
txikien Yaun biozbera,
ta atoz lenbailen gure soroen
egaíi au asezera ».

JAUREGI ' TAR KOLDOBIKA

AURKIBIDEA



Aitzol' dar J.—Itz-aurea..... V

I' ko Zatia

OLERKIAK

<i>Etxeberria' tar Pantzeska.</i> —Bots lore.....	1
<i>Ormaetxea' tar Nikola.</i> —Beti lagun.....	25
<i>Ormaetxea' tar Nikola.</i> —«Lizardi» gurean.....	29
<i>Zaitegi' tar Yokin.</i> —Galburua.....	33
<i>Zaitegi' tar Yokin.</i> —Nere buruaren zoritxara.....	34
<i>Zaitegi' tar Yokin.</i> —Gaztearen eriotza.....	35
<i>Zaitegi' tar Yokin.</i> —Atzeri-zear.....	36
<i>Zaitegi' tar Yokin.</i> —Euskel-gorularia ixildu da.....	37
<i>Zaitegi' tar Yokin.</i> —Esne-beia.....	39
<i>Arin' dar Gotzon.</i> —Maite-egari.....	40
<i>Gaztelu' tar Yon B.</i> —Maitasun-gara.....	44
<i>Onaindia' tar Yakoba.</i> —Bere ereskin-ekaiak.....	50
<i>Erkiaga' tar Eusebi.</i> —Txintak.....	55
<i>Pagadizabal' dar Pantzeska.</i> —Umezurtz-biotzkadak.....	59
<i>Urkidi' tar Albonsa.</i> —Amaren semeak.....	65
<i>Ametzaga' tar Bingen.</i> —Otoia.....	73
<i>Arizubieta' tar Martin M.</i> —Biotz-izketa.....	76
<i>Sagartzazu' tar Kauldi.</i> —Zu iltzen ba'zera.....	79
<i>Muxika' tar Errobustene.</i> —Arno' ko Kurutza.....	83

II' gañen Zatia

EUSKO POEMATXOAK

<i>Keretxeta' tar Erapel.</i> —Oreaga.....	89
<i>Ormaetxea' tar Nikola.</i> —Maite-Damu.....	95

III'gafen Zatia

« LORAMENDI » REN OLERKIAK

Ilargitara	105
Onatx, erletxoak	109
¡ Enada Beltza !	111
Usoekin gora	116
Antzekia	117
Otoi, adiskide !	119

TAPIA-PERURENA'TAR ALEXANDER'EN OLERKIAK

Orein zuria	123
Lore igaña	124
Biotzean min dut	126
Ufretxindofak	128
Lore bikaiña	131
Baztan'go mendiak	133

JAUREGI'TAR KOLDOBIKA'REN OLERKIAK

Efenderi'ko Madalen Deunaren elizatxoan	139
Bafen-izketa	142
Zure oroiz	144
Legortea	147







